



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

UDALBATZAK 2020KO OTSAILAREN 18AN EGINIKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Igor Zapirain Lizarribar EH BILDU
Nagore Zubillaga Garmendia EH BILDU
Luis Lasa Muñagorri EH BILDU
Agurtzane Arribillaga Uranga EH BILDU
Cristina Martinez Arnaiz EH BILDU
Maria Iciar Jauregui Huarte EAJ-PNV
Juan Luis Cid Conde EAJ-PNV
Rodrigo Vilar Caballero Arellano EAJ-PNV
Juan Maria Caballero Arellano EAJ-PNV

IDAZKARIA :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, **bi mila eta hogeiko otsailaren hemetzortzian** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak ez-ohiko bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Igor Zapirain Lizarribar alkate jauna izan zen, eta idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave.

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

1.- 2020ko otsailaren 13an ospaturiko Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpenen inguruko erabakiak

- 1. 2019 urteko Lanpostu Erlazioaren (RPT) eta plantilla organikoaren behin behineko erabakiari ezarritako alegazioak erantzutea**
- 2. 2019 urteko Lanpostu Erlazioaren (RPT) eta plantilla organikoaren behin betiko onarpena**
- 3. 2020 urteko Lanpostu Erlazioaren (RPT) eta plantilla organikoaren behin behineko erabakiari ezarritako alegazioak erantzutea**
- 4. 2020 urteko Lanpostu Erlazioaren (RPT) eta plantilla organikoaren behin betiko onarpena**

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

5. **Giza Baliabide arrazionalizazio planaren behin behineko onarpenaren alegazioak erantzutea**
6. **Giza Baliabide Arrazionalizazio planaren lehenengo fasearen behin betiko onarpena**
7. **2020-2023 urteetarako diru-laguntzen planaren onarpena**
8. **44/2020 eta 45/2020 Alkate Dekretuen berrespean (2020 urterako langileen %2 soldataren igoeraren ingurukoa)**

2.- Ibarra Udalaren eta Gipuzkoako Garraio Lurralde agintaritzaren partzuergoaren artean udal erroldaren datuak egiztatzeko hitzarmena sinatzea onartzea

3.- Onartzea Lankidetzaren hitzarmenen markora atxikitzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eta Ibarra Udalaren arteko, Ertzaintza eta Udaltzaingo elkarlanean aritzeko dena.

LEHENA:

1.- 2020KO OTSAILAREN 13AN OSPATURIKO OGASUN ETA PERTSONAL BATZORDE BEREZIAREN IRIZPENEN INGURUKO ERABAKIAK

1.1 2019 URTEKO LANPOSTU ERLAZIOAREN (RPT) ETA PLANTILA ORGANIKOAREN BEHIN-BEHINEKO ERABAKIARI EZARRITAKO ALEGAZIOAK ERANTZUTEA

2019ko abenduaren 19an buruturiko Udaltzaren ez-ohiko bilkuran Ibarra Udaleko 2019 urteko lanpostuen zerrenda eta plantila organikoaren aldaketa onartu zen behin behiko izaeraz.

2019ko abenduaren 26an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (246 zenbakian) eta bertan alegazioak jartzeko epea zabaltzen zen 2020ko urtarrilaren 21 arte. Epea zabaldua honako alegazioak aurkeztu ziren eta honela erantzun dira.

Batzordeak aho batez osoko bilkurari honakoa proposatzea onartu du:

Lehena.- 2019ko RPTaren aldaketaren aurka aurkeztutako alegazioak ondoren jasotzen den eran erantzutea:

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

2020ko urtarrilaren 21ean, 2020/000268 erregistro zenbakiarekin IDOIA ARANCEGUI andreak, Ibarra Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2019-2021 urte bitarteko programaren 1en faseari alegazioak aurkezten dizkio.

1.- Honakoa alegatzen da:

Dokumentuan, hartzeko neurrien artean, ondorengo aipatzen da: "sailkapen taldeen homogeneotasuna lortzea kriterio berdina erabiliz: sailkapen taldeen arabera egiten den banaketa, ez da modu homogeneo edo bateratu bat erabiliz egin (...), kriterio bateratua erabili gabe sailkatu dira talde desberdinetan (...) ondorioz, egoera bateratu eta homogeneoa erabiliz zuzenketak egin behar dira".

Administrariaren kasuan, berdintasun hori ez da 2019 eta 2020ko lanpostuen zerrendan islatzen, izan ere, kultura administrariaren kasuan N.O. Maila eta O.B.a ez dira gainontzeko administrariarekin berdintzen.

Erantzuna:

Ez da onartzen alegazioa, Kultur Etxean diagnosi bat egitea aurreikusten denez, diagnosi horrek zehaztuko du kultur etxeko behar eta zerbitzuaren egoera.

2.- Honakoa alegatzen da:

Aipaturiko 2019 eta 2020ko lanpostuen zerrendan kultura administrariaren bestelako baldintzetan "MI" jasotzen da. Egun, lanpostu horretan ez da baldintza hori betetzen eta, etorkizunean ateratzen denean, baldintza horrekin aterako den jakin nahiko nuke.

Erantzuna:

Ez da alegazioa onartzen oraingoz. Idazkariaren txosten juridikoa ikusi ondoren, nahiz Ibarra Udalaren borondatea lanpostu horri MI kategoria aldatzea den, horretarako derrigorrez Eusko Jaurlaritza eta beste organismo batzuen aurrean egin beharreko izapideak egin arte ezin izango da aldatu.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

2020ko urtarrilaren 21ean, 2020/000266 erregistro zenbakiarekin TOMAS UGALDEBERE CAMINO jaunak, Ibarra Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2019-2021 urte bitarteko programaren 1en faseari alegazioak aurkezten dizkio.

LEHENENGOA: honakoa alegatzen da: Planean adierazten da Euskara eta Hezkuntza teknikariaren postua 2019ko estabilizaziorako lan eskaintzan barneratuko dela. Alegazioan adierazten da egun Euskara teknikari postuan jarduten duen langilea 2004ko urriaren 25etik lanean diarduela, postu horretan. Eskatzen da estabilizaziorako lan eskaintzan barneratu beharrean, kontsolidazio eskaintza bidez ateratzea postu honen lan eskaintza.

Erantzuna:

Onartzen da alegazioa eta ondorioz kontsolidazio lan eskaintza bidez lanpostu hori ateratzea onartzen da. Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planean aldaketa islatzea eskatzen da.

Bigarrena.- Osoko bilkurara luzatzea akordioa hartzeko.

2020ko otsailaren 13an ospaturiko Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- 2020/000268 erregistroko zenbakiarekin, Idoia Arancegui andreak aurkezturiko alegazioa ez onartzea Ogasun eta Pertsonal Batzordeak iritzitako erantzuten da.

BIGARRENGOA- 2020/000266 erregistroko zenbaki bidez, Tomas Ugaldebere Camino jaunak aurkezturiko alegazioa onartzea eta Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planean aldaketa islatzea eta 2019ko lan eskaintzan kontsolidazio bezala ezartzea.

HIRUGARRENGOA.- Erabakia interesatuei jakinaraztea

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

1.2 2019 URTEKO LANPOSTU ERLAZIOAREN (RPT) ETA PLANTILA ORGANIKOAREN BEHIN-BETIKO ONARPENA

2019ko abenduaren 19an buruturiko Udalbatzaren ez-ohiko bilkuran Ibarra Udaleko 2019urteko plantila eta lanpostuen erlazio zerrendaren aldaketaren onarpena. 2019ko abenduaren 26an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen erabakia (246 zenbakian) eta bertan alegazioak jartzeko epea zabaltzen zen 2020ko urtarrilaren 21erarte.

Epea zabalduta alegazioak aurkeztu ziren eta alegazio hauen erantzunak onartu dira Ogasun eta Pertsonal Batzordean.

2020ko otsailaren 13an ospaturiko Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Onartzea behin betiko izaeraz, Ibarra udaleko 2019 urteko plantilla eta lanpostuen erlazio zerrenda (I eranskinean jasotzen denaren arabera)

BIGARRENGOA- Erabakia GAOan argitaratzea

1.3 2020 URTEKO LANPOSTU ERLAZIOAREN (RPT) ETA PLANTILA ORGANIKOAREN BEHIN-BEHINEKO ERABAKIARI EZARRITAKO ALEGAZIOAK ERANTZUTEA

2019ko abenduaren 19an buruturiko Udalbatzaren ez-ohiko bilkuran Ibarra Udaleko 2020 urterako plantila organikoaren eta lanpostuen zerrenda onartu zen.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

2019ko abenduaren 26an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen erabakia (246 zenbakian) eta bertan alegazioak jartzeko epea zabaltzen zen 2020ko urtarrilaren 21erarte. Epea zabaldua honako alegazioak aurkeztu ziren eta honela erantzun dira.

2020ko urtarrilaren 21ean, 2020/000259 erregistro zenbakiarekin LOURDES LEUNDA andreak, Ibarra Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2019-2021 urte bitarteko programaren 1en faseari alegazioak aurkezten dizkio.

1.- Honakoa alegatzen da:

Ibarra Udaleko 2020ko langileen zerrendan, diruzaina postuaren azpieskala ez da zuzena, diruzaina postuaren azpieskala baita "kontuhartzaitza", baizik eta "Kontuhartzaitza-diruzaintza".

Arrazoiak: Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional.

Artículo 14. Tesorería.

1. En las Corporaciones Locales cuya Secretaría esté clasificada en primera o segunda clase, existirá un puesto de trabajo denominado Tesorería, al que corresponderá la responsabilidad administrativa de las funciones enumeradas en el artículo 5 de este real decreto.

2. Los puestos a que se refiere el apartado anterior, estarán reservados a funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional de la subescala de Intervención- Tesorería.

Erantzuna:

Alegazioa aintzat hartzen da eta legeak ezartzen duen azpieskala egokia ezarri behar da. Aldaketa hau akats bezala izapidetuko da eta ondorioz ez du 2020ko langileen zerrendan onarpen berria beharko.

2020ko RPTan aldatu errorea.



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

2020ko urtarrilaren 21ean, 2020/000268 erregistro zenbakiarekin IDOIA ARANCEGUI andreak, Ibarra Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2019-2021 urte bitarteko programaren 1en faseari alegazioak aurkezten dizkio.

1.- Honakoa alegatzen da:

-Dokumentuan, hartzeko neurrien artean, ondorengoa aipatzen da: "sailkapen taldeen homogeneotasuna lortzea kriterio berdina erabiliz: sailkapen taldeen arabera egiten den banaketa, ez da modu homogeneo edo bateratu bat erabiliz egin (...), kriterio bateratua erabili gabe sailkatu dira talde desberdinetan (...) ondorioz, egoera bateratu eta homogeneoa erabiliz zuzenketak egin behar dira".

Administrariaren kasuan, berdintasun hori ez da 2019 eta 2020ko lanpostuen zerrendan islatzen, izan ere, kultura administrariaren kasuan N.O. Maila eta O.B.a ez dira gainontzeko administrariarekin berdintzen.

Erantzuna:

Ez da onartzen alegazioa, Kultur Etxean diagnosi bat egitea aurreikusten denez, diagnosi horrek zehaztuko du kultur etxeko behar eta zerbitzuaren egoera.

2.- Honakoa alegatzen da:

Aipaturiko 2019 eta 2020ko lanpostuen zerrendan kultura administrariaren bestelako baldintzetan "MI" jasotzen da. Egun, lanpostu horretan ez da baldintza hori betetzen eta, etorkizunean ateratzen denean, baldintza horrekin aterako den jakin nahiko nuke.

Erantzuna:

Ez da alegazioa onartzen oraingoz. Idazkariaren txosten juridikoa ikusi ondoren, nahiz Ibarra Udalaren borondatea lanpostu horri MI kategoria aldatzea den, horretarako derrigorrez Eusko Jaurlaritza eta beste organismo batzuen aurrean egin beharreko izapideak egin arte ezin izango da aldatu.

2020ko urtarrilaren 21ean, 2020/000269 erregistro zenbakiarekin NEKANE AZURMENDI ETXEGARAI andreak, Ibarra Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2019-2021 urte bitarteko programaren 1en faseari alegazioak aurkezten dizkio.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

1.- Honako alegatzen da:

Giza Baliabideak arrazionalizatzeko programaren neurri nagusien laburpena aztertuz, Udal administrari laguntzaile postuak administrari postuetara bilakatzea da Udalaren egitasmoa. Planteatzen den prozesuari so eginez, kultura eta gazteria saileko administrari laguntzaile postua administrari bilakatzea aurreikusten da. Beste hainbat ataletan sortuko diren administrari postuen funtzioak eta egitekoak zehazten diren modura, kultura eta gazteria alorrekoarenak ez dira jasotzen; diagnosi berriaren zain agian? Horrek 2020rako RTPan zehazten diren lanpostuen izaeran baldintzarik sortzen du? Sortzen diren administrari lanpostu guztiak 20 mailan sortzen dira, eta kultura eta gazteria sailekoa berriz 16an mantentzen da; zer dela eta hori? Ez al da Udalaren helburua giza baliabideen arrazionalizazioan estandar bat ezartzea? Dokumentuan garbi definitzen eta zehazten ez diren planteatutako zalantza eta galdera horiei erantzuna ematea eskatzen da.

Erantzun:

Ez da onartzen alegazioa, Kultura eta Gazteria departamentuko diagnosi bat egitea aurreikusten denez, diagnosi horrek zehaztuko du kultur etxeko behar eta zerbitzuaren egoera.

2020ko otsailaren 13an ospaturiko Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- 2020/000259 erregistroko zenbakiarekin, Lourdes Leunda andreak aurkezturiko alegazioa onartzea eta 2020ko langileen zerrendan eskatzen den akatsa zuzentzea.

BIGARRENGOA- 2020/000268 erregistroko zenbakiarekin, Idoia Arancegui andreak aurkezturiko alegazioak ez onartzea Ogasun eta Pertsonal Batzordeak iritzitako erantzuten da (2 alegazioak).

HIRUGARRENGOA- 2020/000269 erregistroko zenbakiarekin, Nekane Azurmendi andreak aurkezturiko alegazioak ez onartzea Ogasun eta Pertsonal Batzordeak iritzitako erantzuten da.

LAUGARRENGOA.- Erabakia interesatuei jakinaraztea

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

1.4 2020 URTEKO LANPOSTU ERLAZIOAREN (RPT) ETA PLANTILA ORGANIKOAREN BEHIN-BETIKO ONARPENA

2019ko abenduaren 19an buruturiko Udalbatzaren ez-ohiko bilkuran Ibarra Udaleko 2020urteko plantila eta lanpostuen erlazio zerrendaren onarpena. 2019ko abenduaren 26an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen erabakia (246 zenbakian) eta bertan alegazioak jartzeko epea zabaltzen zen 2020ko urtarrilaren 21 arte.

Epea zabaldua honako alegazioak aurkeztu ziren eta alegazio hauen erantzunak onartu dira Ogasun eta Pertsonal Batzordean.

2020ko otsailaren 13an ospaturiko Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Onartzea behin betiko izaeraz, Ibarra udaleko 2020 urteko plantilla eta lanpostuen erlazio zerrenda (II. eranskinean jasotzen denaren arabera)

BIGARRENGOA- Erabakia GAOan argitaratzea

1.5 GIZA BALIABIDE ARRAZIONALIZAZIO PLANAREN BEHIN-BEHINEKO ERABAKIARI EZARRITAKO ALEGAZIOAK ERANTZUTEA

2019ko abenduaren 19an buruturiko Udalbatzaren ez-ohiko bilkuran Ibarra Udaleko 2020 urterako plantila organikoaren aldaketa eta lanpostuen zerrenda onartu zen. Bestalde udalbatza berean 2019 urteko lanpostuen zerrenda eta plantila organikoaren aldaketa onartu zen eta baita 2020 urteko lanpostuen zerrenda eta plantila organiko berria onartu ziren.

2019ko abenduaren 26an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 3 erabakiak (246 zenbakian) eta bertan alegazioak jartzeko epea zabaltzen zen 2020ko urtarrilaren 21erarte.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Epea zabaldua honako alegazioak aurkeztu ziren eta honela erantzun dira Ogasun eta Pertsonal Batzordetik:

2020ko urtarrilaren 21ean, 2020/00259 erregistro zenbakiarekin LOURDES LEUNDA andreak, Ibarra Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2019-2021 urte bitarteko programaren 1en faseari alegazioak aurkezten dizkio.

LEHENENGOA: honakoa alegatzen da:

Ibarra Udaleko 2020ko langileen zerrendan, diruzaina postuaren azpieskala ez da zuzena, diruzaina postuaren azpieskala baita "kontuhartzaitza", baizik eta "Kontuhartzaitza-diruzaintza".

Arrazoa: Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional.

Artículo 14. Tesorería.

1. En las Corporaciones Locales cuya Secretaría esté clasificada en primera o segunda clase, existirá un puesto de trabajo denominado Tesorería, al que corresponderá la responsabilidad administrativa de las funciones enumeradas en el artículo 5 de este real decreto.

2. Los puestos a que se refiere el apartado anterior, estarán reservados a funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional de la subescala de Intervención- Tesorería.

Erantzuna:

Alegazioa aintzat hartzen da eta legeak ezartzen duen azpieskala egokia ezarri behar da. Aldaketa hau akats bezala izapidetuko da eta ondorioz ez du 2020ko langileen zerrendan onarpen berria beharko.

2020ko RPTan aldatu errorea.

BIGARRENGOA: honakoa alegatzen da:

Ibarra Udaleko giza baliabideen egonkortasunari buruzko diagnosis ataleko ogasun departamentuko organigramak ogasuneko 2 administrari aurreikusten ditu (gaur egungo kontuhartzaitzako administraria eta zergabilketako administraria)

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

kontuhartzaitzaren ardurapean. Ordea, 2 administrariak, bai Kontuhartzailea, baina baita diruzainaren ardurapean ere egon beharko luketela deritzogu.

Edozein kasutan, zergabilketako administraria behintzat, diruzainaren ardurapekoa litzateke, Martxoaren 16ko 128/2018 errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako Tokiko Administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, 5.2 artikuluan zehazten baita diruzainari dagokiola sarrerren kudeaketa zerbitzua eta zergabilketaren ardura.

Hori dela eta diruzainaren postutik administrarietara marra luzatzea eskatzen dugu.

Erantzuna:

Alegazioa aintzat hartzen da, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako Tokiko Administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa bere 5.2 artikuluan arautzen duenari jarraiki diruzainari eskumenen artean sarrerren kudeaketa zerbitzua eta zergabilketaren ardura dagoenez administratibo horien funtzioetan hori ageri bada, marra luzatu beharko da.

Aldaketa hau akats bezala ulertuko da eta organigrama irudian dagoen akatsa zuzenduko da eta diruzainaren postutik administrari postuetara marra luzatuko da.

Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planean aldaketa hau egitea.

HIRUGARRENGOA: honakoa alegatzen da:

Ibarrako Udaleko giza baliabideak arrazionalizatzeko planaren lehen fasean, ogasun departamentua 2 ogasun administrariekin egonkortzea aurreikusten da. Ordea, etzaigu nahikoa iruditzen, departamentuko kontuhartzaitza, errentak, zergabilketa eta diruzaintza alorretako egungo administrarien funtzio eta eginkizun guztiak betetzeko. Batez ere errentak eta zergabilketari dagokionean.....

Erantzun:

Oraingoz ez da alegazioa aintzat hartzen baina epe laburrean egongo diren estruktura mugimenduak direla eta beraingandik eratorriko da zein behar dauden eta behar horiek asetzeko udalak zein baliabide eta mugimendu egin ditzakeen.

LAUGARRENGOA: honakoa alegatzen da:

Arrazionalizazio planaren V. Atalaren lehen puntuan jasotzen da aurretiazko jubilazioi dagokion aipamena. Bertan jasotako epealdia 3 urteetara mugatzen da. Eskatzen dugu aldatzea epealdi hau eta datorren urteetarako aipamen bat burutzea.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Bestetik gai honi lotuta V.32 atalean administrariaren antolamendu atalean aipamen zehatza egiten da erregistroko eta pertsonaleko langileei, eta ulertzen dugu hauek aipatzeak gainontzekoen aukera kanpoan uzten duela, eta beraz postuei dagokion aipamen zehatz hori zuzentzea eskatzen da. Edozein kasutan akatsa egongo litzateke ere, ulertzen baita ez dela erregistroko postuari buruz ari baizik errolda-artxiboko postuari.

Erantzuna:

Onartzen da arrazionalizazio planaren V. atalean aurretiazko jubilazioari dagokion aipamena aldatzea eta honako erredakzioa egitea: datozen 3 urte hauetan aurrejubilazioa... testuaren ordeztu aurreikusten da datozen urteetan aurrejubilazio.....”.

Giza Baliabide Arrazionalizazio planean 37. orrialdean ikuskatu den akatsa zuzentzea eta erregistro postua jartzen duen lekuan errolda-artxibo postu izena ezartzea, hori baita berez postu horrek duen nomenklatura. Aldaketa akats bezala ulertuko da eta bere izapidetzea jarraituko du.

Ez onartzea Arrazionalizazio planaren V.2 atalean erregistro lanpostuari eta giza baliabideetako administrari lanpostuei egiten zaien aipamen zehatza kentzea. Erabakiaren muina, testuaren atal zehatz horretan espezifikazio hori egiteak ez duelako gainontzeko lanpostuak kanpo uzten.

Aldatzea Giza Baliabideen Arrazionalizazio planean V. atalean aipatzen den testua: datozen 3 urte hauetan aurrejubilazioa... testuaren ordeztu aurreikusten da datozen urteetan aurrejubilazio.....”.

eta zuzentzea 37. Orrialdean aipatzen den akatsa (errolda-artxibo postu izenagatik aldatuz erregistro postua).

2020ko urtarrilaren 21ean, 2020/000268 erregistro zenbakiarekin IDOIA ARANCEGUI andreak, Ibarra Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2019-2021 urte bitarteko programaren 1en faseari alegazioak aurkezten dizkio.

LEHENENGOA: honakoa alegatzen da:

-Dokumentuan, hartzeko neurrien artean, ondorengo aipatzen da: "sailkapen taldeen homogeneotasuna lortzea kriterio berdina erabiliz: sailkapen taldeen arabera egiten den banaketa, ez da modu homogeneo edo bateratu bat erabiliz egin (...),

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

kriterio bateratua erabili gabe sailkatu dira talde desberdinetan (...) ondorioz, egoera bateratu eta homogenea erabiliz zuzenketak egin behar dira".

Administrariaren kasuan, berdintasun hori ez da 2019 eta 2020ko lanpostuen zerrendan islatzen, izan ere, kultura administrariaren kasuan N.O. Maila eta O.B.a ez dira gainontzeko administrariarekin berdintzen.

Erantzuna:

Ez da onartzen alegazioa, Kultur Etxean diagnosi bat egitea aurreikusten denez, diagnosi horrek zehaztuko du kultur etxeko behar eta zerbitzuaren egoera.

BIGARRENGOA: honakoa alegatzen da:

Aipaturiko 2019 eta 2020ko lanpostuen zerrendan kultura administrariaren bestelako baldintzetan "MI" jasotzen da. Egun, lanpostu horretan ez da baldintza hori betetzen eta, etorkizunean ateratzen denean, baldintza horrekin aterako den jakin nahiko nuke.

Erantzuna:

Ez da alegazioa onartzen oraingoz. Idazkariaren txosten juridikoa ikusi ondoren, nahiz Ibarra Udalaren borondatea lanpostu horri MI kategoria aldatzea den, horretarako derrigorrez Eusko Jaurlaritza eta beste organismo batzuen aurrean egin beharreko izapideak egin arte ezin izango da aldatu.

2020ko urtarrilaren 21ean, 2020/000269 erregistro zenbakiarekin NEKANE AZURMENDI ETXEGARAI andreak, Ibarra Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2019-2021 urte bitarteko programaren 1en faseari alegazioak aurkezten dizkio.

Planean jasota dagoenaren baitan, lehen fasean diagnosiarekin ondoren zehazten diren helburu hauek lortu nahi direla baieztatzen da:

- ♦ Antolamendua eta lanpostuen egoeraren azterketa, arazo eta disfuntzio esanguratsuenak identifikatu eta hobekuntza eremuak jaso.
- ♦ Lanpostuetan garatzen diren erantzukizunetan eta funtzioetan berrikusketa eta eguneratze beharrak antzeman.
- ♦ Antolaketa-egitura Korporazio berriaren orientabide estrategikoekin eta egungo joerekin lerrotatzea, udal-antolaketa- eta kudeaketaren arloan

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Hiru helburu nagusi horiei erreparatuz, onartu den dokumentuak aldez aurretik ezarritako helburu horiei azaletik heltzen diela baieztatu daiteke; esaterako, bigarren helburuari so egiten badiogu (lanpostuen erantzukizunetan eta funtzioetan berrikusketa eta eguneratze beharrak antzematea) dokumentua lanpostu batzuetan soilik zentratzen dela ageriko gauza da, eta ondorioz, gainontzeko lanpostuen azterketa airean geratzen da. Lanpostuen erantzukizunak eta funtzioak ez dira behar bezala aztertu ezta zehaztu ere. Analisia hankamotz geratzen den horretan, giza baliabideen arrazionalizazioan hartu beharreko erabakietarako oinarritzkoak direlakoan, egun dauden lanpostuen erantzukizunak eta funtzioak zehaztasunez azaltzea, hau da, egungo “argazkia” islatzen duen diagnostia dokumentuan barneratzea eskatzen dugu.

Erantzun:

Ez da alegazioa onartzen. Egun Udala lehen fasea burutzen ari da, eta lanketarekin jarraitu beharko da. Funtzio denak berrikusi egin beharko dira eta guzti horiek amaitzerakoan diagnostia birmoldatuko da eta egoki barneratuko dira aldaketa guztiak. Hau egun ezingo da burutu (lanketa egoeran gaudelako) eta ondorengo faseetan egoki islatuko da.

BIGARRENGOA: honakoa alegatzen da

Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planak oro har dituen helburuak handinahikoak direla eztaba daezina gertatzen den horretan, lehentasunak, epeak, kronograma, ekintzak, baliabideak, formazioa, eta abar luzea, ez da inplementazio plan antolatu batean aurkezten. Plana irakurtzean, 4. orrialdean (lehenengo fasearen helburu zehatzak zehazten diren horretan) 2. atalean (premia duten lanpostuak sortzea) e) paragrafoan “Kultur etxearen optimizazioa” zehazten da. Premia duten lanpostuetan “kultur etxearen optimizazioa” xehatzea eta zehaztea eskatzen dugu.

Erantzun:

Ez da alegazio onartzen oraingoz. Alegazioan eskatzen dena burutzeke dago. Kultur etxeko diagnosiaren kontratazioa ere oraindik ez da burutu. Kontratazioa egiterako orduan ezarriko dira diagnosi horren ildo eta lerroak. Ondoren diagnostia xehatu eta zehaztua dagoenean adieraziko da horren emaitza.

HIRUGARRENGOA: honakoa alegatzen da

Giza Baliabideen Arrazionalizazio Plana jasotzen duen dokumentuan Araubide Juridikoaren printzipio nagusiak azaltzen dira, non, behin eta berriz, pertsonalaren formazioa, prestakuntza eta trebakuntza planak oinarritzotzat jotzen dira. Hori horrela izanda, deigarria gertatzen da Ibarra Udalak 2019-2021erako onartuko duen Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planaren 2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

barruan ezinbestekoa gertatzen den udal langileen formazio, prestakuntza eta trebakuntza planik ez barneratzea. Egindako diagnosiaren baitan, dokumentuan behin eta berriz errepikatzen den moduan, Ibarako Udalak azken urte 2 hauetan administrazio eremuan egon diren aldaketa guztien aurrean moldatu eta egokitu behar den horretan (administrazio elektronikoa, datuen babesa, kontratazioa, eta abar luzea), udal langileen formazio hutsuneak edota beharrak ez dira inondik inora azaleratzen planean, ezta sortu daitezkeen gabezia horiei erantzuna emango dien formazio planik ere. Gauzak horrela, Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planean formazio, prestakuntza eta trebakuntza plana barneratzea eskatzen dugu.

Erantzun:

Ez da alegazio onartzen oraingoz. Errege Dekretu Legegile 5/2015 ak bere 69. artikuluan adierazten duen bezala "las administraciones publicas podrán aprobar planes para la ordenación de recursos humanos, que incluyan, entre otras, algunas de las siguientes medidas" ez du esaten derrigorrez neurri denak barneratu behar direnik. Beraz formakuntzaren plana ez barneratzea hautazkoa da eta ez ezinbestekoa. Estructura egoki zehaztu arte eta funtzio eta behar denak egoki adierazi arte ez da oso logikoa formakuntza plan bideragarri eta egokitu bat zehaztea. Planaren 2.en fasean barneratuko dira neurri hauek.

LAUGARRENGOA: honakoa alegatzen da :

Ibarako Udaleko giza baliabideen egonkortasunari buruzko diagnosian, behin-behinekotasunari dagokion atalean, azken aurreko paragrafoari dagokionez (Idazkaritza eta Kontuhartzaitza departamentuaren banaketa azaltzen duena), egoera zehatz bakar baten berri ematen duela agerikoa da; bestelako Udal departamentu batzuetan aldaketak egon direla eztaba daezina gertatzen den horretan, analisi orokorra egin dadila eskatzen dugu.

Erantzun:

Ez da alegazioa onartzen. Gure aburuz, analisi orokorra gauzatu da. Agente desberdinak parte hartu dute analisisian: udal korporazioko langileak, negozio mahaiak, politikariak eta kanpo enpresa baten gidaritza pean. Beraz, diagnostia orokorra eta objektiboa egiten saiatu da udala.

BOSGARRENGOA: honakoa alegatzen da:

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Administrazio elektronikoak eta herritarrei arreta emateko modu berriek sorturiko betebeharrak atalari dagokionez, HAZ edo herritarrentzako arreta zerbitzua eratzearen beharra azpimarratzen da. Horretan, Ibarra Udalak 2019an kultur etxean herritarrentzat erregistro zerbitzua ezartzea erabaki zuen (bertako langileekin negoziatu gabe). Gauzak horrela, Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planean gaiaren inguruan argudiatzen den guztia (Herritarren Arreta Zerbitzuko lanpostuari dagozkion egiteko eta funtzioak zehazten diren horretan, esaterako, dokumentazioa elektronikoa bihurtu, IZFE programan eskaneatu, jakinarazpen elektronikoak kudeatu, eta abar) ontzat hartzen bada, kultur etxean egun arratsaldean ematen den erregistro zerbitzua kentzea eta udaletxean arratsaldean ematea eskatzen dugu.

Erantzun:

Alegazioa ez da onartzen. Arratsaldean erregistro zerbitzua gehitzeko datuak falta direla eta ondorioz arratsaldetan egiten diren erregistro kopuruen txostena egin beharko litzateke. Bertan islatzen den informazioak emango dio udalari horrelako erabaki bat hartzeko beharrezko datu objektiboak.

SEIGARRENGOA: honakoa alegatzen da:

Administrazio elektronikoak, herritarrei arreta emateko modu berriek, zein eta indarrean sartu diren lege berriek sortu dituzten zerbitzu eta eginkizun berriak barnerratzeko beharri dagokionez, modu batean edota bestean Udal Sail guztiei eragiten dieten zioak direla jakitun izanda, erronka horiei guztiei aurre egiteko sailez saileko beharren analisia egitea eskatzen dugu.

Erantzun:

Alegazioa ez da onartzen. Arrazionalizazio planarekin zerikusirik zuzenik ez duen gaia dela deritzogu ondorioz, modernizazio mahaiari jorratu beharreko gaia dela irizten da. Bertan jorraitze lana egitean, sailez sail egingo da eta sail bakoitzari dagokion azterketa xehatua egiten saiatuko gara.

ZAZPIGARRENGOA: honako alegatzen da:

Departamentuen antolamenduari dagokion atala aztertuz, Kultura eta Gazteria (dokumentuan kultura soilik agertzen da) departamentuari dagokionez, diagnosiaren emaitza (dokumentuan agerian jartzen dena behintzat) oso urritzat, mugatutzat eta lotsagarritzat jotzen dugu. Teknikari honek Ibarra Udalean 22 urteko ibilbidea duen honetan, Kultura eta Gazteria sailari

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

dagozkion zerbitzuak, kultur ekipamenduak, funtzioak, egitekoak, eta abar luzea, zenbat aldatu, sortu, hazi eta bilakatu diren datu objektibo eta neurgarriak dira. Errealitate horretan, Departamentuak pertsonal gehiago behar duela behin eta berriz adierazi, aldarrikatu eta datuekin argudiatu badugu ere, departamentuko langileok diagnosi fasean transmititu duguna eta Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planaren dokumentuan islatu dena bat ez datozela baieztatzen dugu; “arazoak” ia langileen arazo pertsonal izatera soilik sinplifikatu dira edota eraikuntzaren (kultur etxeak kasu honetan) estrukturak baldintzatzen duenari indarra eman zaio, bestelako arazoak kanporatuta. Dokumentuak “kultur etxeko” azterketa eta diagnosi zehatz bat burutzea eta ondorioz antolaketa definitzea aurreikusten du; ez al da “Kultura eta Gazteria departamentuko azterketa eta diagnosia” izango? 3 Gure atalari dagokion ondorioei so eginez, diagnosian parte hartu dugun langileekiko etsipena eta haserrea sortzen duela baieztatu daiteke. Gauzak horrela, planteatzen den azterketa eta diagnosi berriaren beharra eta helburuak (dokumentuan zehazten direnak azalekoak eta sinpleegiak direnez) zehaztea eta azaltzea eskatzen dugu. Era berean, Udal Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planaren prozesu orokorrarekiko atzerapena edota “zintzilik”/“isolaturik” geratzea suposatuko ote duen argitzea eskatzen dugu.

Erantzun:

Onartzea Giza Arrazionalizazio Planean Kultur etxeko azterketa eta diagnosia hitza erabili beharrean Kultura eta Gazteria departamentuko azterketa eta diagnosia ezartzea.

Bestalde alegazio honen inguruan adierazi nahi da, udalaren helburua aipaturiko diagnosi hori zehaztasun eta azalpen guztiekin egikaritzeko nahia eta borondatea duela eta horrela agertu du. Azken finean, udalak ez du inondik inora bertako departamentu eta langileak isolaturik sentitzerik nahi eta horregatik denen partehartzea bermatzen saiatzen ari da une oro.

Giza Baliabide Planean Kultur Etxeko diagnosia ezartzen duen lekuetan aldatzea eta Kultura eta Gazteria Departamentuko azterketa ezartzea.

ZORTZIGARRENGOA: honako alegatzen da:

Giza Baliabideak arrazionalizatzeko programaren neurri nagusien laburpena aztertuz, Udal administrari laguntzaile postuak administrari postuetara bilakatzea da Udalaren egitasmoa. Planteatzen den prozesuari so eginez, kultura eta gazteria saileko administrari laguntzaile postua administrari bilakatzea aurreikusten da. Beste hainbat ataletan sortuko diren administrari postuen funtzioak eta egitekoak zehazten diren modura, kultura eta gazteria alorrekoarenak ez dira jasotzen; diagnosi berriaren zain agian? Horrek 2020rako RTPan zehazten diren lanpostuen izaeran baldintzarik sortzen du? Sortzen diren administrari lanpostu guztiak 20 mailan sortzen dira, eta kultura eta gazteria sailekoa berriz 16an mantentzen da; zer dela eta hori? Ez al da Udalaren helburua giza baliabideen arrazionalizazioan estandar bat ezartzea? Dokumentuan garbi definitzen eta zehazten ez diren planteatutako zalantza eta galdera horiei erantzuna ematea eskatzen da.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Erantzun:

Ez da onartzen alegazioa, Kultura eta Gazteria departamentuko diagnosi bat egitea aurreikusten denez, diagnosi horrek zehaztuko du kultur etxeko behar eta zerbitzuaren egoera.

BEDERATZIGARRENGOA: honakoa alegatzen da:

Giza Baliabideak arrazionalizatzeko programaren neurri nagusien laburpenarekin jarraituz, planaren 39. orrialdean azaltzen den "Bestalde, teknikari denak talde berean bateratuko liritezke kontuan izanik teknikari postu hauetan ez daudela menpe dauden beste posturik. Hau da, denak unipertsonalak dira edo ez dituzte beste lanpostu batzuk kudeatzen". Baieztapen hori ez da zuzena Kultura eta Gazteria departamentuari dagokionez; 1997ko irailaren 9ko 170. GAOn argitaratutako Kultura teknikaria kontratatze oinarrietan jasota dagoenaren baitan, besteak beste, kultura teknikariaren egitekoetan honakoa zehaztu zen: "Kultur etxearen eta kultur etxeko langileen zuzendaritza, dinamizazioa eta ikuskaritza orokorra". Gauzak horrela, kultura teknikariak kultur etxeko eta bertako langileak diren liburuzainaren eta administrari laguntzailearen zuzendaritza lanak ditu bere egitekoen artean. Hori dela eta, diagnosian, organigraman zein eta lanpostuaren balorazioan funtzio hori behar den moduan aitortu dadila eskatzen dugu.

Erantzun:

Onartzen da Kultura teknikariak bere ardurapean beste langile batzuk dituela eta onartzen da ere Arrazionalizazio planean agian ezartzen den testuan ez dela argi adierazten, kategoria aldaketa ez dela soilik beste langile batzuen ardurara izateak eragiten duela. Beraz, eskatzen da testu horretan zuzenketa egitea eta erabiltzen den beste kriterioak ere (funtzioen eta erantzukizunen arabera) azaltzea.

2020ko urtarrilaren 21ean, 2020/000266 erregistro zenbakiarekin TOMAS UGALDEBERE CAMINO jaunak, Ibarra Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2019-2021 urte bitarteko programaren 1en faseari alegazioak aurkezten dizkio.

LEHENENGOA: honakoa alegatzen da: Planean adierazten da Euskara eta Hezkuntza teknikariaren postua 2019ko estabilizaziorako lan eskaintzan barneratuko dela. Alegazioan adierazten da egun Euskara teknikari postuan jarduten duen

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

langilea 2004ko urriaren 25etik lanean diarduela, postu horretan. Eskatzen da estabilizaziorako lan eskaintzan barneratu beharrean, kontsolidazio eskaintza bidez ateratzea postu honen lan eskaintza.

Erantzuna:

Onartzen da alegazioa eta ondorioz kontsolidazio lan eskaintza bidez lanpostu hori ateratzea onartzen da. Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planean aldaketa islatzea eskatzen da.

2020ko otsailaren 13an ospaturiko Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- 2020/000259 erregistroko zenbakiarekin, Lourdes Leunda andreak aurkezturiko alegazioetan honela erantzuten da:

- Lehenengo alegazioa onartzea eta 2020ko langileen zerrendan eskatzen den akatsa zuzentzea.
- Bigarrenengo alegazioa onartzea eta akatsa zuzentzea Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planean
- Hirugarrenengo alegazioa onartzen da partzialki eta ez onartzen partzialki Ogasun eta Pertsonal Batzordeak iritzitakoaren arabera erantzuten delarik.

BIGARRENGOA.- 2020/000268 erregistroko zenbakiarekin, Idoia Arancegui andreak aurkezturiko alegazioetan honela erantzuten da:

HIRUGARRENGOA.- 2020/000269 erregistroko zenbakiarekin, Nekane Azurmendi andreak aurkezturiko alegazioetan honela erantzuten da:

- Lehenengo alegazioa ez onartzea Ogasun eta Pertsonal Batzordeak iritzitakoaren arabera erantzuten delarik
- Bigarrenengo alegazioa ez onartzea Ogasun eta Pertsonal Batzordeak iritzitakoaren arabera erantzuten delarik
- Hirugarrenengo alegazioa ez onartzea Ogasun eta Pertsonal Batzordeak iritzitakoaren arabera erantzuten delarik
- Laugarrenengo alegazioa ez onartzea Ogasun eta Pertsonal Batzordeak iritzitakoaren arabera erantzuten delarik
- Bosgarrenengo alegazioa ez onartzea Ogasun eta Pertsonal Batzordeak iritzitakoaren arabera erantzuten delarik

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- Seigarrenge alegazioa ez onartzea Ogasun eta Pertsonal Batzordeak iritzitakoaren arabera erantzuten delarik
- Zazpigarrenge alegazioa onartzea Ogasun eta Pertsonal Batzordeak iritzitakoaren arabera erantzuten delarik eta ondorioz Giza Baliabide Planean aldaketa egitea
- Zortzigarrenge alegazioa ez onartzea Ogasun eta Pertsonal Batzordeak iritzitakoaren arabera erantzuten delarik
- Bederatzigarrenge alegazioa onartzea Ogasun eta Pertsonal Batzordeak iritzitakoaren arabera erantzuten delarik eta Giza Baliabi Arrazionalizazio planean eskatutako testua aldatzea

LAUGARRENGOA.- 2020/000266 erregistroko zenbaki bidez, Tomas Ugaldebere Camino jaunak aurkezturiko alegazioa onartzea eta Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planean aldaketa islatzea eta 2019ko lan eskaintzan kontsolizazio bezala ezartzea.

BOSGARRENGOA.- Erabakia interesatuei jakinaraztea

SEIGARRENGOA.- Alegazioen erantzunen onarpena eta ez onarpena: 2019ko Langile zerrenda eta plantilla organikoaren aldaketaren, 2020ko Langile zerrenda eta plantilla organikoaren eta Giza Baliabide Arrazionalizazio planaren behin betiko onarpenaren testuetan barneratzea eta GAOn argitaratzea.

1.6 GIZA BALIABIDE ARRAZIONALIZAZIO PLANAREN LEHEN FASEAREN BEHIN-BETIKO ONARPENA

2019ko abenduaren 19an buruturiko Udaltzaren ez-ohiko bilkuran Ibarra Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2019-2021 bitarteko programaren 1. Fasea onartu zuen behin-behinekoz.

2019ko abenduaren 26an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen erabakia (246 zenbakian) eta bertan alegazioak jartzeko epea zabalitzen zen 2020ko urtarrilaren 21erarte.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Epea zabaldua honako alegazioak aurkeztu ziren eta erantzun dira Idazkariaren txosten juridikoak ere aintzat harturik (2019WPOL0273 espedientean barneratuak). Alegazio hauen erantzunak onartu dira Ogasun eta Pertsonal Batzorde honetan.

Alegazio hauetaz gain, dokumentu honetan errore batzuk aurkitu dira:

1. Euskara, Hezkuntza Teknikariaren inguruan; hau da, Euskara, Hezkuntza eta Kirol teknikaria ezartzen duen lekuan Euskara eta Hezkuntza Teknikaria ezarri behar da. Zuzenketa egoki burutu da idazkaritzatik.
2. Bestalde, aurkibidean izendatzen diren atalak eta ondoren deskribatzen diren atalean zerrenda zenbakia ez dago egoki. Aurkibidean IV atala giza baliabideak arrazionalizatzeko programaren neurriak ezartzen zen eta aldiz puntu honen deskribapena V. atalean egiten zen. Gauza bera gertatzen zen V. puntuarekin. Aurkibidean V. puntuan proposatzen diren neurrien azterketa juridikoa adierazten zen eta aldiz puntu honen deskribapena VI. Atalean egiten zen. Beraz egoki zuzentzea proposatzen da eta aurkibidean ezartzen den zenbaki erlazioa jarraitzea eskatzen da.
3. Proposatzen diren neurrien azterketa juridikoa (iv. atala aurrez ezartzen zena eta egiten den zuzenketarekin v. atal bezala adierazten dena) txertatzen da. Hemen ez da erabakirik hartzen baizik aurrez onarturiko erabakien inguruan legeak esaten duena adierazten da. Beraz dokumentua egoki amaitua egoteko puntu honen deskribapen egokia txertatzea eta onartzea proposatzen da.

2020ko otsailaren 13an ospaturiko Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea, behin-betiko izaerarekin Ibarra Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2019-2021 bitarteko planaren lehenengo fasea III eranskinean jasotzen den testuarekin.

2020/02/18

21



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

BIGARRENGOA: Erabakia GAOan eta Ibarra Udaleko web orrialdean argitaratzea.

1.7 2020-2023 URTEETARAKO DIRU-LAGUNTZEN PLANAREN ONARPENA

2016k martxoaren 16an Ibarra Udalak 2016-2019 urte bitarteko dirulaguntza plana onartu zuen. Hiru urtekoa amaitu denez, eta 38/2003 Legeak (azaroak 17koak bere 8.1 artikuluan) eskatzen duena aintzat harturik Ibarra Udalak Dirulaguntzan Plan estategikoa onartuko du.

2020ko otsailaren 13an ospaturiko Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA: Onartzea Ibarra Udalaren 2020-2023 epealdirako Dirulaguntzen Plan estategikoa (IV eranskina)

BIGARRENGOA: Erabakia eta eranskina GAOan argitaratzea.

1.8 44/2020 ETA 45/2020 ALKATE DEKRETUEN BERRESPENA (2020 URTERAKO LANGILEEN %2 SOLDATAREN INGURUKOA

2020ko urtarrilaren 31an 44/2020 eta 45/2020 Alkate Dekretu bidez, 2020ko urtarrilaren 22an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2/2020 Errege Dekretu Legegileak proposatzen zuen Administrazio Publikoko langileen soldataren %2ko igoera egitea onartu zen.

Idazkariak adierazi bezala, Udalbatzak Alkate Dekretu hauen berrespena egitea ezinbestekoa izango da.

2020ko otsailaren 13an ospaturiko Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

LEHENA.- Berrestea 2020ko urtarrilaren 31an 44/2020 eta 45/2020 Alkate Dekretuetan erabakitako Administrazio Publikoko langileen soldataren %2ko igoera.

BIGARRENA.- Soldaten aldaketa egitea 2020ko plantilla organikoan.

BIGARRENA:

2.- IBARRAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO GARRAIO LURRALDE AGINTZARITZA PARTZUERGOAREN ARTEAN UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEKO HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA

2020 otsailaren 7an 484 erregistro zenbakiarekin Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak udal datual kalatzeko hitzarmena sinatzeko eskaera egiten du. Hitzarmen honen helburua GGLA MUGI txartealk eskatzen dituzten pertsonak Gipuzkoako Udalerriaren batean erroldatuta egotea beharraren eskakizunaren gainean datu pertsonalak erabiltzeko baldintzak ezartzea, baita GGLAk mantendu behar duen konfidentzialtasun esparrua ezartze da.

Hitzarmen honen xede diren dautak soil-soilik GGLAaren aldetik erabiltzaileen erroldatzea egiaztatzea mugatuko da eta datu babeserako beharreko neurri eta metodologia denak bermatu eta hartuko dira (hitzarmenean argi adieratzen den bezala). Hitzarmen honek ez du kostu ekonomikorik izango Ibarra Udalarentzako, Administrazio arteko lankidetzara mugatuko da.

Hitzarmena aztertu ondoren, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA. Onartzea Ibarra Udalaren eta Gipuzkoako Garraio Lurralde agintaritzaren partzuegoaren artean udal erroldaren datuak egiaztatzeko hitzarmena sinatzea (V eranskina)

BIGARRENGOA. Erabakia GAOan argitaratzea.

HIRUGARRENA:

3.- ONARTZEA LANKIDETZA HITZARMENEN MARKORA ATXEKITZEA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIOAREN ETA IBARRAKO UDALAREN ARTEKO, ERTZAINZTA ETA UDALTZAINGOA ELKARLANEAN ARITZEKO DENA

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailari, 2020ko otsailaren 4an proposamena egiten dio Ibarra Udalak (127 irteera erregistro zenbakiarekin) Lankidetzaren hitzarmen marko bat sinatzeko Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eta Ibarra Udalaren artean Ertzaintza eta Udaltzaingoa elkarlanean aritzeko.

Esparru hitzarmen honen xedea da Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko lankidetzaren eta elkarlaneko moduak eta prozedurak arautzea, lurraldean erabil daitezkeen polizia-baliabideak optimizatzeko eta herritarren segurtasun publikoaren beharrei zerbitzu hobea emateko.

Hitzarmena akordio onartu eta 2020ko abenduaren 31 arte egongo da indarrean.

Hitzarmena aztertu ondoren, Udaltzaren, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA. Onartzea Ibarra Udalaren eta Euskal Autonomia erkidegoaren Administrazioaren arteko hitzarmenaren markora atxikitzea Ertzaintza eta Udaltzaingoen elkarlanean aritzeko.

BIGARRENGOA. Erabakia GAOan argitaratzea.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeita bi direnean. Nik, idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko

Ibarra Idazkaria

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

I.- ERANSKINA

PLANTILA ORGANIKOA 2019 urte amaiera

Izena	Lanpostu kopurua	Taldea	Egoera	Oharrak
1.-NAZIO GAIKUNTZA DUTEN FUNTIZIONARIOAK				
Idazkaritza Azpieskala				

2020/02/18



Idazkaria	1	A1	H	
Kontuhartzaitetza-Diruzaintza Azpieskala				
Kontuhartzailea	1	A1	H	
Diruzaina	1	A1	H	
2.- ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA				
Azpieskala Administraria				
Administraria	6	C1	2J + 4H	1 % 50
	2		2 h	Barne promozioa
Azpieskala Laguntzailea				
Administrari laguntzailea	3	C2	3J	A exingir
3.-ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA				
Azpieskala teknikoa: goi mailako teknikoa				
Arkitektoa	1	A1	J	
Azpieskala Teknikoa				
Ingurumen Teknikaria	1	A2	H	
Euskara eta Hezkuntza Teknikaria	1	A2	H	
Itzultzaile-Interpretea	1	A2	H	Lanaldiaren % 75
Arkitekto Teknikoa-Aparejadorea	1	A2	H	
Liburuzaina	1	A2	J	
Kultura Teknikaria	1	A2	J	
Gizarte Langilea	1	A2	J	
Zerbitzu berezien azpieskala klasea: Udaltzaingoa				
Lehen Agentea	1	C1	H	Dedikazio berezia
Agentea	3	C1	3H	
Aguzila	1	C2	h	A extinguir
Zerbitzu berezien azpieskala.klasea: eginkizun anitzak				
Kirol Zuzendaria	1	C1	H	



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Obra enkargatua	1	C2	J	
Lorezaina	1	C2	H	
Eginkizun anitzeko langilea elektrikari	1	C2	J	
Eginkizun anitzeko langilea.obrak	2	C2	2H	

	Guztira	Beteak	Hutsik
PLANTILLA GUZTIRA	33	11	22

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

2019 LANPOSTUEN ZERRENDA / RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO 2019

Izena Denominación	Zenb. Núm.	Hornitza ko Forma Provi.	Talde Gru po	Ordainsari osagarriak Retribucio nes Complement arias		Eskala Escala	Azpi es. Sub es.	Mota Clas e	Hizkuntza- eskakizuna Perfil Linguístico		Titul az. Titul ac.	Arduraldi a Dedicaci ón	Best elako baldi ntzak Otros	Ordainsari osagarriak
				N.O. Mail a Nive l C.D.	O.B. C..E.				HE PL	Derrigort asun- data Fecha Precepti vidad				
Idazkaritza- Secretario-	1	ML CM	A1	26	27.129, 48	GN HN	I S	2.a 2ª	4	27/10/20 09	L L	100		
Kontuhartzaile tza Interventor	1	ML CM	A1	26	27.129, 48	GN HN	K I	2.a 2ª	4	27/10/20 09	L L	100		
Diruzaina Tesorero	1	ML CM	A1	25	26.062, 54	GN HN	KD IT	2.a 2ª	4	30/11/20 17	L L	100		
Administraria kontuhartzailet za Administrativo intervención	1	ML CM	C1	20	17.923, 78	AO AG	A A	A A	3	31/12/19 94	GB BS	100		
G.B. Administraria Administrativo R.H.	1	ML	C1	20	17.923, 78	AO AG	A A	A A	3	28/12/20 10	GB BS	100		
Administraria zergabilketa Administrativo recaudación	1	ML CM	C1	20	17.923, 78	AO AG	A A	A A	3	31/12/19 94	GB BS	100		
Administraria kultura Administrativo cultura	1	ML CM	C1	16	16.219, 00	AO AG	A A	A A	3	31/12/20 19	GB BS	100	MI	
Administraria harreta Administrativo atención ciudadanos 2020/02/18	1	promoc ión interna	C1	20	17.923, 78	AO AG	A A	A A	3	31/12/20 19	GB BS	100		

27

Administraria HAZ	1	ML	C1	20	8961,8 9	AO	A	A	3	31/12/20 19	GB	50		
Administrativo SAC		CM				AG	A	A			BS			



II.- ERANSKINA

PLANTILA ORGANIKOA 2020

Izena	Lanpostu kopurua	Taldea	Egoera	Oharrak
1.-NAZIO GAIKUNTZA DUTEN FUNTIZIONARIOAK				
Idazkaritza Azpieskala				
Idazkaria	1	A1	H	
Kontuhartzailletza-Diruzaintza Azpieskala				
Kontuhartzailea	1	A1	H	
Diruzaina	1	A1	H	
2.- ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA				
Azpieskala Administraria				
Administraria	6	C1	2J + 4H	1 % 50
	2		2 h	Barne promozioa
Azpieskala Laguntzailea				
Administrari laguntzailea	3	C2	3J	A extingir
3.-ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA				
Azpieskala teknikoa: goi mailako teknikoa				
Arkitektoa	1	A1	J	
Azpieskala Teknikoa				
Ingurumen Teknikaria	1	A2	H	
Euskara eta Hezkuntza Teknikaria	1	A2	H	
Itzultzaile-Interpretea	1	A2	H	Lanaldiaren % 75
Arkitekto Teknikoa-Aparejadorea	1	A2	H	
Liburuzaina	1	A2	J	

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Kultura Teknikaria	1	A2	J	
Gizarte Langilea	1	A2	J	
Zerbitzu berezien azpieskala klasea: Udaltzaingoa				
Lehen Agentea	1	C1	H	Dedikazio berezia
Agentea	3	C1	3H	
Zerbitzu berezien azpieskala.klasea: eginkizun anitzak				
Kirol Zuzendaria	1	C1	H	
Obra enkargatua	1	C2	J	
Lorzaina	2	C2	H	
Eginkizun anitzeko langilea elektrikari	1	C2	J	
Eginkizun anitzeko langilea.obrak	2	C2	2H	

	Guztira	Beteak	Hutsik
PLANTILLA GUZTIRA	33	11	22

2020 LANPOSTUEN ZERRENDA / RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO 2020

Izena <i>Denominación</i>	Zenb. Núm.	Hornitzaileko Forma Provi.	Taldea Grupo	Ordainsari osagarriak <i>Retribuciones Complementarias</i>		Eskalera Escala	Azp. ies. Su bes.	Mota Clase	Hizkuntza- eskakizuna <i>Perfil Linguístico</i>		Titulaz. Titulac.	Arduraldia <i>Dedicación</i>	Bestelako baldintzak <i>Otros requisitos</i>	Ordainsari osagarriak <i>Retribución complementaria</i>
				N. O. Maila Nivel C. D.	O.B. C..E.				HE	Derrigor tasun-data <i>Fecha Preceptividad</i>				
Idazkaritza- Secretario-	1	ML CM	A1	26	27.12 9,48	GN HN	I S	2. a 2ª	4	27/10/2 009	L L	100		

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Kontuhartzai letza <i>Interventor</i>	1	ML CM	A1	26	27.12 9,48	GN HN	K I	2. a 2ª	4	27/10/2 009	L L	100		
Diruzaina <i>Tesorero</i>	1	ML CM	A1	25	26.06 2,54	GN HN	KD IT	2. a 2ª	4	30/11/2 017	L L	100		
Administrari a kontuhartzai etza <i>Administrati vo intervención</i>	1	ML CM	C1	20	17.92 3,78	AO AG	A A	A A	3	31/12/1 994	GB BS	100		
G.B. Administrari a <i>Administrati vo R.H.</i>	1	ML	C1	20	17.92 3,78	AO AG	A	A	3	28/12/2 010	GB BS	100		
Administrari a zergabilketa <i>Administrati vo recaudación</i>	1	ML CM	C1	20	17.92 3,78	AO AG	A A	A A	3	31/12/1 994	GB BS	100		
Administrari a kultura <i>Administrati vo cultura</i>	1	ML CM	C1	16	16.21 9,00	AO AG	A A	A A	3	31/12/2 019	GB BS	100	MI	
Administrari a harreta <i>Administrati vo atención ciudadana</i>	1	prom oción intern a	C1	20	17.92 3,78	AO AG	A A	A A	3	31/12/2 019	GB BS	100		
Administrari a HAZ <i>Administrati vo SAC</i>	1	ML CM	C1	20	8961, 89	AO AG	A A	A A	3	31/12/2 019	GB BS	50		
Administrari a HIRIGINTZA	1	ML CM	C1	20	17.92 3,78	AO	A	A	3	31/12/2 019	GB	100		

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Administrati v URBANISM O						AG	A	A				BS			
Administrari a gizarte	1	prom oción intern a	C1	20	17,92 3,78	AO	A	A	3	31/12/2 019		GB	100		
Administrati vo gizarte		prom oción intern a				AG	A	A				BS			
Administrari laguntzailea errolda artxiboa	1	ML	C2	18	19.04 8,40	AO	AL	AL	3	31/12/1 994		OB	100		A EXTINGI R
Auxiliar Administrati vo padrón archivo		CM				AG	AA	AA				BE			
Administrari laguntzailea erregistroa	1	ML	C2	18	17.21 1,60	AO	AL	AL	3	18/12/2 002		OB	100		A EXTINGI R
Auxiliar Administrati vo Registro		CM				AG	AA	AA				BE			
Administrari laguntzailea ongizate	1	ML	C2	18	17.21 1,60	AO	AL	AL	2	09/06/1 998		OB	50 -GZ SS		A EXTINGI R
AuxiliarAdmi nistrati vo Servicio Social		CM				AG	AA	AA				BE	50- ZO SG		
Kultura- teknikaria	1	ML	A2	20	18.26 9,02	AB	T	ET	4	22/07/1 997		D	100		
Técnico de Cultura		CM				AE	T	TM				D			
Liburuzaina	1	ML	A2	18	15.12 2,52	AB	T	ET	3	28/04/1 992		D	100		
Bibliotecario		CM				AE	T	TM				D			
Gizarte- laguntzailea	1	ML	A2	21	18.79 6,82	AB	T	ET	3	31/12/1 994		D	100		
Asistente Social		CM				AE	T	TM				D			
Kiroldegiare n zuzendaria	1	ML	C1	20	17.99 5,74	AB	ZB	E B C E	3	31/12/2 001		GB	100		
Director de Deportes		CM				AE	SE	CE				BS			

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Euskara eta Hezkuntza teknikaria <i>Técnico Euskara y Educación</i>	1	ML CM	A2	19	19.42 0.52	AB AE	T T	GT TS	4(T P)		L L	100		
Itzultzaile eta Interpretaria <i>Traductor e Intérprete</i>	1	ML CM	A2	19	1456 5,39	AB AE	T T	GT TS	4(T P)	18/12/2 008	L L	75%		
Arkitekto <i>Arquitecto</i>	1	ML CM	A1	25	22.41 5,82	AB AE	T T	GT TS	3	18/12/2 008	L L	100	B1	
Arkitekto teknikoa edo Aparejadore a <i>Arquitecto Técnico o Aparejador</i>	1	ML CM	A2	22	2031 7,78	AB AE	T T	ET TM	3	26/01/2 005	D D	100		
Ingurumen teknikaria <i>Técnico de Medio Ambiente</i>	1	ML CM	A2	19	19.42 0.52	AB AE	T T	GT TS	4	18/12/2 008	L L	100		
Obra-arduraduna <i>Encargado de Obras</i>	1	ML CM	C2	20	19.16 6,56	AB AE	ZB SE	LL PO	2	31/12/1 992	OB BE	100	B1	
Ofizial lorezaina <i>Oficial de Jardinería</i>	2	ML CM	C2	16	17.00 9,58	AB AE	ZB SE	LL PO	2	27/12/2 000	OB BE	100	B1	
Igeltseroa <i>Operario Albañil</i>	1	ML CM	C2	16	17,00 9,58	AB AE	ZB SE	LL PO	1		EZ CE	100		
Argiketaria <i>Oficial Cometidos Múltiples: Electricista</i>	1	ML CM	C2	16	17.00 9,58	AB AE	ZB SE	LL PO	2	02/03/2 005	OB BE	100	B1	
Eginkuzun anitzetarako ofiziala <i>Operario Cometidos Múltiples</i>	1	ML CM	C2	16	17.00 9,58	AB AE	ZB SE	LL PO	1	17/02/1 998	OB BE	100	B1	

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Lehen Agentea	1	IL	C1	19	19.14 8,36	AB	ZB	U D	3	29/09/2 016	OB	100	B1	%20 D.B.T.B. O 20% C. E.D.E.
Agente Primero		LD				AE	SE	PL			BE			
Agentea (txandak)	3	ML	C1	17	16.50 2,50	AB	ZB	U D	2	29/09/2 016	OB	100	B1	

III.- ERANSKINA

IBARRAKO UDALEKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO 2019-2021 BITARTEKO PROGRAMA PLANAREN 1. FASEA: MEMORIA

SARRERA

Azken urte hauetan administrazio eremuan indarrean sartu diren lege eta arau desberdinak direla medio (39/2015 Legea urriaren 1ekoa Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkidea arautzen duena, 40/2015 Legea urriaren 1ekoa Sektore Publikoko Erregimen Juridikoa arautzen duena, 2016/679/EBk onarturiko Erregelamendua, apirilak 27koa, Pertsona Fisikoen Datu Pertsonalen Tratamendua eta Zirkulazio Askea arautzen duena...) Ibarra udalak aldaketa garrantzitsu eta ezinbestekoak egin behar izan ditu lege hauetara moldatzeko. Aldaketa guzti hauek eragina izan dute; lan egiteko moduan, lan egiteko tresnetan, egunero aplikatu beharreko prozedura eta izapidetze sisteman, sistema informatikoan, langileen funtzio eta antolatze moduan...

Herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen eskaintza zabaltea eragiteaz gain, administrazio elektronikoan murgiltzea eta hedatzea dakar eta guzti hau habian ezartzeko; herritarrei zuzenduriko zerbitzuen izapide liburua burutu da, izapide hauek sistematizatzeko espedienteak berregituratzen ari gara, espediente kudeatzailean espediente bakoitzaren estruktura sortu eta dokumentazio eta txantiloiak sortzen gabiltza, prozesuen gardentasuna eta informazio publikorako sarbidea bermatzeko nahian espedienteak sistematizatu eta sinplifikatzen saiatzen ari gara, artxiboaren antolaketa burutzen ari gara, datu babeserako legea errespetatze aldera hau bermatzeko sistemak ezartzen ari gara, departameto desberdinen arteko koordinazio lana eta protokolorizazioa burutzen ari gara, langileen barne araudia berria sortzeko pausoak ematen ari gara.

Guzti hau bideratzeko, udal antolakuntzan ere aldaketa nabarmenak egitea beharrezkoa zaigu. Postu berriak sortzeko beharra sortzeaz gain, aurretik dauden postuen berregituratzea eta

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

funtzioen banaketa egokia egitea ezinbestekoa da. Honen inguruko hausnarketa egiteko asmoz, espezializaturiko enpresa baten zerbitzuak kontratatu dira Ibarra Udaleko pertsonal diagnostia egiteko asmoarekin. Pertsonal diagnostian 2 fase gauzatzea aurreikusten da. Une honetan lehen fasean aurkitzen gara eta helburua hauek lortu nahi dira diagnosi honekin:

- Antolamendua eta lanpostuen egoeraren azterketa, arazo eta disfuntzio esanguratsuenak identifikatu eta hobekuntza eremuak jaso.
- Lanpostuetan garatzen diren erantzukizunetan eta funtzioetan berrikusketa eta eguneratze beharrak antzeman.
- Antolaketa-egitura Korporazio berriaren orientabide estrategikoekin eta egungo joerekin lerrokatzea, udal-antolaketaren eta -kudeaketaren arloan.

Giza baliabideen plantilla eta bere ezaugarrien inguruko lehen hausnarketa burutu ondoren, baliabide hauek nola antolatu herritarrei zerbitzu egokiena eman ahal izateko pausoak eman behar ditugu. Lehen ausnarketaren ondorioetako bat, plantilla horren egonkortasuna lortzea helburu nagusietako bat izan behar duela da. Egonkortasun honekin zerbitzuen egokitasuna, espezializazioa eta efizientzia lortzen dela ondorioztatu da. Beraz, erronkari aurre egiteko lehen pausoa Giza Baliabideen Arrazionalizazio plan bat egituratzea da eta Ibarra Udalaren helburua plan hau 2019ko urte amaieran onartzea da.

Ibarra Udalak dituen antolakuntza arazoak eta berriguratzea aurrera eramateko lana astuna da eta fase desberdinetan burutu beharko da. Bestalde, egungo egoera aztertu ondoren aldaketa desberdinak eman daitezke eta horren arabera faseek ere aldaketak jasan ditzazkete. Ondorioz, oraingo honetan lehen fasean murgiltzen da bereziki eta horren deskribapen zehaztua egiten du.

GIZA BALIABIDEEN ARRAZIONALIZAZIO PLANA

2018ko Estatuko aurrekontu Legeak ematen dizkigun aukeretaz baliatzeko, ezinbesteko zaigu lanpostu berriak sortzea, berrantolatzeko premia duten departameto desberdinen definizio egokia egitea (beti ere legeak ezartzen dizkigun mugak errespetatuz) eta funtzioak postuetara egokitzea. Errege Dekretu Legegile 5/2015ak (urriak 30ekoa, Langile Publikoen Oinarrizko Estatuto Legearen testu bateratua onartzen duenak) bere V. tituluko I kapituluaren giza baliabideen planifikazioa burutzeko tresnak aurreikusten ditu (69-71 artikuluko bitarte) eta hauetatik baliatuz eta aipaturiko guztia aurrera eramateko honako plan hau burutzen dugu.

Beraz, Giza Baliabideen Arrazionalizazio Plana onartzea izango da lehen pausua eta honekin batera honako aldaketak egitea bideratzen dituzten tresnak habian jartzea ezinbestekoa da:

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- Departamentuen ebaluazioa egitea, sail bakoitzean dauden beharren aurrean irtenbideak proposatuz. Hau, kontratatu den pertsonal diagnosiaren bidez egitea gomendatzen da eta langileen ordezkariaren parte hartzearekin negoziazio mahaian hartu beharreko irizpenetan isladatu beharko litzateke.
- Sortu behar diren lanpostuak identifikatu, amortizatu beharreko lanpostuak identifikatu eta lanpostu berri horien anasili, balorazioa eta funtzioen asignazio egokia egin beharko litzateke.
- Dagokion urteko enplegu eskaintza burutu.
- Plantilla Organiko eta lanpostuen zerrenda egokitu eta zuzendu beharko litzateke: mailak, osagarriak egoki ezarriz, ...
- Lanpostuen funtzioak eta zereginak berraztertu eta lortu nahi den organigramara egokitu beharko liratezke.
- Departamento bakoitzaren eta udal osoaren antolaketa jasotzen duen organigrama berria egin beharko litzateke.
- Langileen udal barne araudi berria egin beharko litzateke.
- Departamentu bakoitzean lanpostu bakoitzaren inguruan manual bat egitea ere proposatzen da, bertan adieraziko delarik lana nola burutu, zein tresnetaz baliatuz egiten den eta tresna horiek nola erabiltzen diren (modu honetan, polibalentzia bermatuko litzateke postu bakoitzaren egitekoak protokolarizatu eta jasoaz).
- Protokoloak zehaztu beharko liratezke: departamentu desberdinen arteko elkarlana zehaztuz, itzulpen zerbitzuaren protokoloak zehaztuz, organo kolegiatuei irizpenak igortzeko modua zehaztuz (deialdiak egiteko, txostenak egiteko epeak zehaztuz) horrela barne mailan sor daitezkeen eskumen arloko dudak desagertuko liratezke. Lan taldeak eta teknikarien arteko bilerak sortu eta protokolarizatu beharko liratezke. Protokolo hauek instrukzioetan bilakatu eta langileei jakinarazteko, Ibarra Udalean sorturik dagoen Intranetaren erabilera bultzatu beharko litzateke.

Pertsonal diagnosiaren laguntzarekin, lanpostuen, departamentuen eta udalaren antolaketa egokia zehaztu ondoren lanpostuen balorazio prozesu berria egitea aurre ikusten da baina hau etorkitzunean egingo den lan bat izango da.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Egun, postu guzti hauen zeregin eta funtzioen benetako deskribapenak burutzen ari da.

Giza Baliabide Arrazionalizazio Planaren egikaritzarekin honako helburu nagusiak lortu nahi dira:

1. Egun plantillan dauden aldi baterako izendapen eta kontratuen egoera aztertzea, eta enplegua egonkortzeko neurriak aplikatzea, indarrean dauden legeek ematen dituzten baliabideak landuz. Errege Dekretu Legegile 5/2015ak (urriak 30ekoa, Langile Publikoen Oinarrizko Estatuto Legearen testu bateratua onartzen duenak) bere V. tituluko I kapituluan giza baliabideen planifikazioa burutzeko tresnak erabili beharko direlarik.
2. Udal plantillaren tamaina egokitu, eraginkortasun eta efizientzia printzipioetan oinarrituz eta herritarren zerbitzuetara egokituz.
3. Udal departamentuen egitura aztertzea, egokitzea eta departamentuak egoki estrukturatzea. Honetarako kontutan hartuko dira udaleko sektore publikoan egin behar diren arrazionalizazio eta sinplifikazio prozesuak. Alegia, administrazioa elektronikoa barneratu beharko da eta herritarren arreta egoki emateko hartu beharreko neurriak hartuko dira (legeak ezartzen dituen mugak egoki errespetatuz).
4. Ibarra Udaleko enplegu publikoaren kudeaketa antolatzeko eta sistematizatzeko tresna egokiak disenatzea.
5. Ibarra Udalak ematen dituen zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea
6. Etorkizunean Ibarra Udaleko langile publikoen ordainsariak berraztertzeke pausuak ematea eta aldi berean lanpostu bakoitzarentzat xedaturiko funtzio eta zereginetara egokitzea ordainsari eta erantzunkizunak.
7. Zuzendaritza funtzioa sendotzea, barne koordinazioa indartzea, zeharkako ikuspegia eta talde-lanaren kultura bultzatzea eta horretarako Koordinazio Taldea formalki eratzea da helburua. Orain arte Alkatetzarekin, Idazkaria eta Kontuhartzaileek egiten zen koordinaketa, areagotu egingo da eta horrela hiritarrekiko harremana erreztu eta arreta zerbitzu integralagoa emango da. Bestalde, guzti hau aurrera eramateko HAZ zerbitzua bultzatu beharko da.

Giza Baliabide Arrazionalizazio Planaren **lehenengo fasearen helburu** zehatzak honako hauek dira:

1. Aldi baterako lanpostuak eta funtzioak egonkortzeko 2017ko eta 2018ko Estatuko Aurrekontuak arautzen dituzten aukeretaz baliatzea, udaleko plantilla egonkortzeko eta

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

prekarietate-maila gutxitzeko tresnak erabiltzea Lege 6/2018ak (uztailak 3koa, 2018 urteko Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak) bere 19. xedaturikoak alegia.

2. Premia duten lanpostuak sortzea:

- a. Legeak xedaturiko funtzioak eta zereginak betetze aldera: izaera pertsonaleko datuak babesteko delegatua, Informatikaria...
- b. HAZ zerbitzua sortzea: Herritarrentzako erreferentziazko Udal Zerbitzua da, eta bertatik eskaintzen zaizkie esku-hartze tekniko espezializatua behar ez duten udal zerbitzu gehienak (informazioa, izapideak egitea eta kudeaketa), bai zuzeneko arreta bidez, bai telefono bidez edo telematikoki. Sarrera errazteaz gain, komunikazioa eta harremana hobetzen ditu.
- c. Brigadak behar duen organizazio estruktural egokia sortzea.
- d. Kiroldegiaren egoera egonkortzea: Kiroletako politika eta kiroldegiko zerbitzuen bultzadarako lagunduko duen antolaketa. Kiroldegirako errentagarritasun planaren emaitzekin lerrotatuz (abian dagoen azterketa da eta zerbitzuaren antolaketan eta publikazioan izan dezaken eragina).
- e. Kultur etxearen optimizazioa
- f. Hirigintza, obra eta zerbitzuak eta merkaritza, nekazaritza eta ingurumen departamentuak uztartu eta departamentu buru bat izendatzea eta departamentu berria antolatzea behar dituen baliabideak emanez.
- g. Udaltzaingoen estruktura sortzea bertan dagoen gorputz poliziala doitu. Udaltzain zerbitzu berriaren osaketa eta ezarpenaren plangintza erreztu:
 - i. Zerbitzuen katalogoa
 - ii. Lanpostuen estaldura
 - iii. Taldearen eraketa eta antolaketa (turnoak, ordutegiak, ...)
 - iv. Protokoloak eta prozedura administratiboak finkatu, zenbait kasutan beste sailekin koordinatuz (mugikortasuna, isunen kudeaketa, animaliak, hondakinak, bide publikoako okupazioak, kaleko salmentak, obren ikuskaritza, seinalizazio, ...)
 - v. Baliabide fisikoak eta materialak eskuratu

3. Amortiza daitezkeen lanpostuak identifikatzea

4. Plantillaren malgutasuna eta mugikortasunerako tresnak sortzea, giza baliabideen optimizazioa eta zereginen egonkortasuna bermatzeko, hau langileen eskubideak

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

kontutan hartuz egin beharko da. Plazen definizio orokorragoak egitea, barne-sustapenerako jardunbideak, lehen aipaturiko manualak eginez etab. Sortzen diren singularizatu gabeko plaza berriak ahalik eta modu zabalenean definitzen saiatu beharko gara.

5. Ibarra Udaleko gainontzeko departamentuetan izan daitezkeen gabeziak eta husuneak detektatzea.

Azpimarratu behar da, prozesu guzti honen funtsezko elementuetako bat Negoziazio Kolektiboa dela. Horretarako udal agintariekin batera lan talde bat eratuko da prozesu guzti hau aurrera eramateko eta espezializazio duten kanpo enpresen laguntza ere beharko da. Prozesu guztia gardentasunarekin egingo da eta langileen iritzia kontutan hartuko da langileen ordezkariak prozesu osoan parte hartuko duelarik. Erabakiak aldiz, negoziazio mahaian hartzea gomendatzen da (Udalbatzak onartu beharreko erabakietan ezinbestekoa izan arren proposatzen da langileengan afekzioa duten erabakiak negoziazio mahaian erabakitzea ahal den neurrian).

ATALAK

Memoria honek honako atalak barneratzen ditu:

- I. Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programak: Araubide Juridikoa eta Printzipio Nagusiak**
- II. Tokiko Entitateek bere burua antolatzeko duten ahala: Lanpostuen Zerrenda eta Aurrekontu-Plantilla**
- III. Ibarra Udaleko giza baliabideen egonkortasunari buruzko diagnostia, orokorra eta departamentuka**
- IV. Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programaren neurriak**
- V. Proposatzen diren neurrien azterketa juridikoa**
- VI. Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planaren izapidetzea**
- VII. Eranskinak:**
 - a. 2019 urteko lanpostuen zerrenda**
 - b. 2019 urteko plantilla organikoa**
 - c. 2020 urteko lanpostuen zerrenda**
 - d. 2020 urteko plantilla organikoa**

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA



**I ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN GIZA BALIABIDEAK
ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMAK: ARAUBIDE JURIDIKOA ETA
PRINTZPIO NAGUSIAK**

Indarrean dagoen Konstituzioak, bere 103. artikuluan xedaturikoari jarraiki; Administrazio Publikoak objetibotasunez zerbitzatzen ditu interes orokorrak, eta jarduera-printzipioa du, besteak beste, eraginkortasuna, legearen eta zuzenbide osotara men eginik. Bestalde 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua (EPOE hemendik aurrera) arautzen duena, honako dio bere Zioen Azalpenean:

Artikulu hau EPOEko 69. artikulua xedatzen duenarekin uztartuz, giza baliabideak planifikatzeko helburu eta tresnak honakoak direla adierazten da:

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

I. KAPITULUA

Giza baliabideen plangintza

69. artikulua. Plangintzaren helburuak eta tresnak.

1. Administrazio publikoetako giza baliabideak planifikatuta, aurrerapausoak eman nahi dira, batetik, zerbitzua ematerakoan eraginkortasuna lortzeko, eta, bestetik, erabilgarri. dauden baliabide ekonomikoak kudeatzerakoan eragimenez jarduteko. Horretarako, langile kopurua egokitu behar da, langileak hobeto banatu, ondo prestatu eta lanbide-sustapena eta mugigarritasuna eskaini.

2. **Administrazio publikoek giza baliabideak antolatzeko planak onartu ahal izango dituzte**, plan horien barruan, besteak beste, honako neurri hauek hartuta:

a) **Dauden eta behar diren langileen inguruko analisia**, aintzakotzat hartuta bai langile kopurua, bai lanbide-profilak edo prestakuntza-maila.

b) **Lana antolatzeko erabiliko diren sistemei buruzko aurreikuspenak**, eta lanpostuen egituretan egingo diren aldaketak.

c) **Mugigarritasun-neurriak**; esate baterako, kanpoko langileak sartzeko aukera etenda utz daiteke eremu jakin batzuetan edo lanpostuak betetzeko lehiaketa-deialdi batzuk eremu jakin batzuetako langileentzat bakarrik jarri.

d) **Barne-sustapeneko eta langile-prestakuntzako neurriak**, eta nahitaezko mugigarritasunekoak ere bai, estatutu honen titulu honetako III. kapituluan ezarritakoari jarraituz.

e) **Giza baliabide gehiago sartzeko neurriak, enplegu publikoaren eskaintzaren bitartez**, hurrengo artikuluan ezarritakoarekin bat.

3. Administrazio publiko bakoitzak bere baliabideak planifikatuko ditu aplikagarri zaizkien arauk ezarritako sistemen arabera.

Oinarrizko erregulazio hau abiapuntutzat hartuta, garapenerako araudi zabal bat indarrean jarri da Giza Baliabideak arrazionalki erabiltzeko gaien. Araudi horretan, besteak beste, xedatzen da Administrazio Publikoek enplegu-planak lantzeko duten ahal. Administrazio Publikoek, beren burua antolatzeko ahal horretaz baliatuz, eta langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren, giza baliabideak arrazionalki erabiltzeko programak ezar daitezke, bai langile funtzionarioentzat eta bai lan-kontratukoentzat ere, guztiek izan dezaten, bakoitzaren eragin-eremuaren barruan, giza baliabideak hobeto erabiltzeko abian jarritako ekimenen onura. Guztia, betiere, aurrekontuak ematen dituen aukeren barruan, eta Gobernu Organoek pertsonal-politikarako ezarritako gidalerroak aplikatuz.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Honen arira, 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak Euskal Funtzio Publikoa arautzen duenak, 22. artikuluan honakoa adierazten du Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programen inguruan:

22 artikulua.

1. Euskal Administrazio publikoek beren antolketa **ahalmenaren arabera eta langileen ordezkartzearekin negoziatu ondoren arrazionalizazio programak egin ditzakete**, funtzionarioeri eta Ina kontratupeko langileei dagokienean. Plan horiek jasoko dute giza baliabideak egoki erabiltzeko garatu beharreko jarduketarako eragiten dieten eremuan eta aurrekontu mugen barruan, gobernu organoek ezarritako langile politikari buruzko gidalerroen arabera.
2. **Giza baliabideen arrazionalizazio programek txerta ditzakete enplegu planerako aplikagarri den araudian ezarritako neurriak**, baita borondatezko lan utzialdirako eta borondatezko erretirorako pizgarriak eta baita zerbitzu aktibora uko egiteko edo behin betiko bajarako pizgarriak.
3. Giza baliabideen arrazionalizazio planak lege honetan ezarritakoari lotuko zazizkio eta administrazio publiko bakoitzaren araudira.
4. Enplegu planek aplikagarri zazizkien araudia beteko dute.
5. Giza baliabideen arrazionalizazio planak eragindako langilek beste administrazio publiko batean txerta daiteke beren artean hitzartaturiko hitzarmenek jasotako baldintzetan.
6. Autonomia erkidegoaren administrazioaren eremuan, giza baliabideen arrazionalizazio programek departamentu, erakunde edo arlo bati edo batzuei eragin diezaike. Bere onarpena funtzio publikoaren arloko departamentuari dagokio, ogasun arloko aldeko txostenarekin, Departamentu bakarrera lotzen direnean horrek onartuko ditu, aiaturiko departamentuen aldeko txostena aurretik dutela. Egiteko proposamena edo ekimena eragindako departamentu edo erakundeari dagokio edo funtzio publiko edo ogasun arloko departamentuei. Azken kasu horretan txostena eskatuko zaie aplikatzen zaie departamentuei.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren xedapenak garatzeko araudi autonomikorik ezean, Eusko Jaurilaritzak emandako 190/2004 Dekretua aplikatzen da. Dekretu honetako 41. artikulua eta hurrengoetan arautzen da administrazio publikoetako giza baliabideak arrazionalizatzeko programak, programa hauek barne har ditzaketen neurriak eta onarpena emateko prozedurak.

. 42. artikulua.– Hainbat neurri.

Giza-baliabideak arrazionalizatzeko programek euren baitan jaso ditzakete jarraian aipatutako neurri hauek edo horiek guztiak:

- a) Antolakuntza-egiturak nahiz lanpostuak aldatzeko aurreikuspenak.
- b) Eraginpeko alorrean kanpoko langileak sartzea bertan behera uztea, sartzeko hori enplegu eskaintzaren bidez nahiz mugikortasun prozeduraren bidez gertatu bada.
- c) Alor jakinetako langileei mugaturiko lehiaketak egitea lanpostuak betetzeko.
- d) Langileen prestakuntza eta gaitasunerako plangintzak langileak berriro koka daitezkeen laguntzeko asmoz.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- e) Barne sustapenerako neurri bereziak.
- f) Langileen berrizendapena.
- g) Lanaldi partzialeko zerbitzuan jardutea.
- h) Beste herri administrazio batzuekin hitzarmenak sinatzea langileak berrizendatzeko xedez.
- i) Borondatezko lan-utzialdia, aurreraturiko erretiroa, jarduneko zerbitzua uztea edo jarduneko zerbitzuan behin betiko baja hartzea sustatzeko pizgarriak.
- j) Arrazionalizatzeko programaren helburuei dagozkien bestelako neurriak.

Guzti honekin ondorioztatu daiteke, Giza Baliabiek Arrazionalizatzeko Programak eta Enplegu planak jarduketa globaleko figurak direla, eta langileen egoera antolakundearen premietara egokitzeko neurriak eta aurreikuspenak finkatzeko egiten direla. Pertsonala planifikatzeko eta administrazioko egiturak berrantolatzeko tresnak direnez, ezagunak eta egiaztatuak diren desdoikuntzak konpontzeko erabiltzen dira batez ere. Beraz, aukera operatiboak eskaintzen dituzte honako ondorioetarako:

- Giza baliabideen erabilera optimizatzeko
- Pertsonal-politikak garatzean atzemandako premietara egokitzeko

Honetaz gain, Estatuko 364/1995 Errege Dekretuak, martxoaren 10ekoak, behin-betiko bultzada eman zuen era honetako tresnen eraginkortasuna aitortuz, arau honek ezartzen ditu Giza Baliabideen Plan Integralak zehaztuko dituztela pertsonalaren arloan lortu beharreko helburuak, helburu horiek betetzeko egokitzat jotzen diren giza baliabideen kopurua eta egitura, hasierako langile-kopurua eraldatzeko behar diren neurriak eta horretarako egin beharreko jarduketak, batez ere mugikorasanari, prestakuntzari eta promozioari dagokionez.

II. TOKIKO ENTITATEEK BEREN BURUA ANTOLATZEKO DUTEN AHALA: LANPOSTUEN ZERRENDA ETA PLANTILLA

5/2015 Errege Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duenak, 74. artikuluan honakoa adierazten du:

Administrazio publikoek beren antolaera egituratuko dute lanpostuen zerrendatren bitartez edo antzeko tresnen bitartez.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Tokiko Entitatei dagokionez, beraien burua antolatzeko ahalmena Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 6.1 artikuluan aitortzen die.

Bestalde, 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 13. artikuluan eta hurrengoetan arautzen ditu Lanpostuen zerrendak eta honakoa adierazten du hauen inguruan:

1. Administrazio Publikoetako Lanpostuen Zerrenden xedea da: barne-egiturak arrazionalizatzea eta ordenatzea, langile-premiak finkatzea, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztea eta lanpostu bakoitza sailkatzea.
2. Lanpostuen Zerrendak lanpostu guztiak jaso behar ditu, aurrekontuan dotazioa duten guztiak, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat, aldi baterako lan-kontratukoentzat eta behin-behineko pertsonalentzat gordetakoak bereiziz.
3. Lanpostuen Zerrendak honako hauek adieraziko ditu lanpostu bakoitzeko: lanpostuen izena; saila; dedikazio-erregimena; lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean hizkuntz eskakizuna; sailkapen-taldea, eskala, azpieskala edo kategoria lan-kontratuko langileak direnean; osagarriak (destinokoa eta espezifikoa), eta lanpostua betetzeko modua.

Aipatu, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, bere 90.2 artikuluan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, tokiko entitateak behartzen ditu antolakuntzan dituzten lanpostu guztien zerrenda osatzera, lehen azaldutako funtzio publikoari buruzko oinarrizko legedian aurreikusitakoaren arabera. Halaber, Lege honen 90.1 artikulua xedatutakoaren arabera, Toki-Korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, langileen plantilla onartzea. Zerrenda horretan funtzionarioen, eta lan-kontratuko eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak jaso behar direlarik.

Aipatutakoaren arira, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duenak (aurrerantzean TATB), xedatzen du lanpostuen zerrendek beti jaso beharko dutela funtzio publikoari buruzko oinarrizko legedian aurreikusitako edukia, eta 7/1985 Legeko 90.2 artikuluan ezarritako arauen arabera prestatuko dela lanpostuen zerrenda. TATBko 126. artikulua, 1.2 eta 3. paragrafoetan arautzen du plantilla prestatzeko eta aurrekontuan onartzeko modua, adierazten du plantillan sartuko direla dotazio ekonomikoa duten plaza guztiak. Halaber, artikulua honek xedatzen du plantilla aldatzeko honako prozedura jarraitu beharko dela:

2.- Plantillak handitu daitezke kasu hauetan:

a.- Dotazien gastu hazkundea kopentsatuta geratzen denean beste gastu arrunt ez zabalgrietako kapituluaren edo unitateen murrizketarekin

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

b.- Dotazioen hazkundera derrigorezko Zerbitzuak ezartzearen ondorio bada, legezko xedapeneek ezarritakoak.

Atal honetan ezarritakoa kalterik gabe da aplikagarri lege berezi edo kointuralek ezarritako mugekin.

Azken urte hauetan Estatuko Aurrekontuetako legeek bereziki mugatu dituzte sektore publikoaren langile kontratazioak. Honek eragin handia izan du udal plantilletan eta ondorioz, langileen behin-behinekotan tasa neurri gabe hazi da.

Bestalde, karrerazko funtzionarioen batz besteko adina oso altua da eta jubilazio eta aurrejubilazio egoerak handitu dira. Lan postu hauek bete nahian, eta zeuden mugak gantitzeko modurik ez denez izan, behin behinekotasunez postuak betetzea ezinbestekoa izan da.

Guzti honetaz gain, indarrean sartu diren legeek (ondoren adieraziko direnak) postu eta funtzio berriei aurre egitea dakar eta egokitzeko beharra suertatu da. Gainera ez da ahaztu behar Errege Dekretu Legegile 5/2015ak (urriak 30ekoa, Langile Publikoen Oinarrizko Estatuto Legearen testu bateratua onartzen duenak) bere 10.4 artikuluan honakoa adierazten duela:

10.4. En el supuesto previsto en la letra a) del apartado 1 de este artículo, las plazas vacantes desempeñadas por funcionarios interinos deberán incluirse en la oferta de empleo correspondiente al ejercicio en que se produce su nombramiento y, si no fuera posible, en la siguiente, salvo que se decida su amortización

Ondorioz postu hauek erregularizatu egin behar dira eta dagoikion lan eskaintzan postu hauek eskaintzeko obligazioa dugu.

Hau dela eta, pertsonal diagnosi bat egitea ezinbestekoa izan zaigu. Modu honetan, antolamendu eta lanpostuen egoeraren azterketa egitea derrigorrezkoa izan da arazo eta disfunzio esanguratsuenak identifikatu eta hobekuntza eremuak jasotzeko asmoarekin.

Bestalde, lanpostuetan garatzen diren erantzunkizun eta funtzioen berrikusketa ere egin behar izan da eguneratzeko beharrak atzemateko. Informazio guzti honekin, korporazioaren antolaketa-egitura berriaren orientabide estrategikoa aurkitu nahi izan da udaleei eskatzen zaien betebeharrei aurre egiteko eta egun udal-antolaketa eta kudeaketa arloan dauden joera berriekin lerrokatzeko.

III. IBARRAKO UDALEKO GIZA BALIABIDEEN EGONKORTASUNARI BURUZKO DIAGNOSIA.

DIAGNOSTIKO OROKORRA

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA


Pertsonal diagnosi batek suposatzen duen aldaketa eta langile eta udal funtzionamenduari ekar dakizkion aldaketak garrantzitsuak izan daitezkeela ohartu ondoren, kanpoko enpresa batek diagnosi hau modu objetiboagoan eta zuzenagoan egingo duela erabaki du Ibarra Udalak. 2019ko maiatzaren 9an 2019/179 Alkate Dekretu bidez, LKS enpresa kontratatzen da Ibarra Udaleko pertsonal diagnostia burutzeko asmoarekin.

Aldaketa ugari egin behar direla argi izanik, prozesu luze baten aurrean aurkitzen gara eta lehen urratsa udal plantilla eta udal antolaketaren egoeraren azterketa sakona egitea da.

2019ko azaroan aurkezten da analisi horren ondorioa. Bertan honako datuak ondorioztatu dira:

a) Langileen kontratuen arabera egiten den analisia:

7. **Interinitatearen arazoa:** plantilako %42 interinitate egoeran dago, hau da 13 langile.
8. **Karrerako funtzionario urritasuna:** plantilako % 39 karrerazko funtzionarioak dira, 12 langile alegia eta hurrengo 3 urteetan hauetako 2 aurrejubilatze egoeran aurkitzen dira.
9. **Aldi baterako pertsonalari** dagokionez, % 19 a langile alegia. Hauetako erdia baino gehiago bi artero kontratatzen dira eta egoera honetatik ond lanpostu izan behar ziren postuak betetzen sa langileekin).
10. **Ez dago labora finkorik.**




b) Langileen sailkapen taldearen arabera honako postuak ba

a) A1 taldean:

- a. Kontuhartzailea (Nazio Gaikuntza)
- b. Diruzaina (Nazio Gaikuntza)
- c. Idazkaria (Nazio Gaikuntza)
- d. Arkitektoa
- e. Euskara eta Hezkuntza teknikaria
- f. Ingurumen Teknikaria
- g. Itzultzaile-Interpretea

b) A2 taldean:

- a. Arkitekto-Tekniko-Aparejaorea



2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- b. Liburuzaina
 - c. Gizarte Langilea
 - d. Kultura-Gazteria Teknikaria
 - e. Informatikoa (programa bidezko funtzionarioa)
- c) C1 taldean:
- a. Administraria (Kontuhartzailletza)
 - b. Administraria (Giza Baliabideak)
 - c. Administraria (Zergabilketa)
 - d. Administraria
 - e. Lehen Agentea
 - f. Agentea (3)
 - g. Kiroldogiko zuzendaria
- d) C2 taldean:
- a. Administrari Laguntzailea (errolda eta artxiboa)
 - b. Administrari Laguntzailea (erregistroa)
 - c. Administrari Laguntzailea (diruzaintza)
 - d. Administrari Laguntzailea (ongizatea eta idazkaritza)
 - e. Administrari Laguntzailea (kultura eta gazteria)
 - f. Administrari Laguntzailea (programa bidezko funtzionarioa)
 - g. Obra arduraduna
 - h. Lorezaina
 - i. Argiketaria
 - j. Obra eta zerbitzu langilea
 - k. Eginkizun anitzeko langilea
- e) E/LT taldean:
- a. Alguazila
 - b. Obra eta zerbitzuko langilea

Guzti honekin honako arazoekin aurkitzen da Ibarra Udala:

1.- Behin-behinekotasun egoera (plantilaren %42):

2010 urtetik aurrera, Estatuko Aurrekontu Orokorrek pertsonal arloa mugatu dute. Sektore Publikoko erakundeen lan eskaintza publikoa murriztera eramán gaituzte eta ezarri diren mugak direla eta ezinezkoa izan da lan eskaintza publikorik eskeini. Muga honetaz gain, birjarpen-tasaren muga dugu gure gain eta honek jubilatzen ziren langileek sorturiko hutsuneak izaera finkoko langileekin betetzeko aukera ezezten zuen. Egun muga hau mantentzen da aurrekontu-legearekin.

Bestalde, indarrean sartu diren lege berriek funtzio eta zerbitzu gehiago ekarri dituzte (administrazio elektronikoa, datu babeserako ordezkariak, berdintasun teknikariak, ingurumen 2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

teknikariak, ...) eta hauei aurre egiteko ezinezkoa izan da plantila handitzea edo postu berriak sortzea. Aurrekontu legearen debeku eta mugak errespetatuz, aukera bakarra zerbitzu berriei aurre egiteko; bitarteko funtzionarioak edo aldi baterako lan izaerako langileak kontratatzea izan da.

Bestalde, 2010. urtean Idazkaritza eta Kontuhartzailtza departamentuak banandu ziren (ordurarte bateraturik zeuden) eta ez zen inolako funtzio banaketarik egin, ez eta antolakuntza berririk aurrekusi ere. Honek arazo handiak sortu ditu: modu ez egokian banaketa egitea eta departamentu horietako arduradunen komunikazioa faltak (politikariek ere pertsonal arloan zeuden liskarrei aurre egiteko arazoak zituztelarik) ez du pertsonal arloan behar zen garapenik ekarri.

Aipatu behar da, Lege 6/2018ak (uztailak 3koa, 2018 urteko Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak) bere 19. Xedaturikoak oinarritzko izaera duela eta honek derrigortzen gaituela egonkortasuna bilatzera.

2.- Langileen batez besteko adina

Egun plantilan nahiko jende gaztea dago (bataz bestekoa 40-50 urte bitarte dagoelarik). Azken urte hauetan plantilaren gehiengoa aurre jubilatu da eta hurrengo urteetan 3 edo 4 pertsona jubilatzea aurreikusten da. Aurre jubilatu diren langile horien postuak bitarteko funtzionario bidez bete behar izan dira eta betetzeko aukera ez zegoenean funtzio batzuk beste departamentu batzuetara esleitu dira (adibidez euskara departamentuak kirola beregain hartu du).

3.- Administrazio Elektronikoak eta herritarrei arreta emateko modu berriek sorturiko betebeharrak

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkidea arautzen duenak, berrikuntza ugari ekarri ditu eta 2018ko urriaren 2tik aurrera hauek indarrean egotea eskatzen zen. Lege honen arabera; erregistro elektronikoaren sorrera eta elkarreragingarritasuna, ahalordetzeen eta gaitutako funtzionarioen erregistroak, administrazioen sarbiderako puntu bakarra, artxibo elektronikoa, jakinarazpen elektronikoa... indarrean egon behar ziren. Abuztuaren 31ko 11/2018 Errege-Dekretuak bi urtez atzeratu zuen betebeharrak hau eta 2020ko urriaren 2rako indarrean egon behar dira gutxienez: ahalordetzeen erregistroa, gaitutako funtzionarioen erregistroa, erregistro elektronikoa, administrazioaren sarbide puntu bakarra eta artxibo elektronikoa.

Guzti hau indarrean jartzeko Ibarra Udalak izugarritzko aldaketa egin behar du eta kontutan izanik dituen programa informatiko denak IZFERekin dituela, azken honek baliabideak jartzen dituen heinean jardun ahal izango du. Bestalde orain arte Ibarra Udalak ez du inoiz informatikari

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

posturik izan eta aldaketa denak aurrera eramateko ezinbestekoa da informatikan aditua den norbait plantilan barneratzea. Horretarako 3 urteetarako programa bidezko bitarteko funtzionario bat kontratatu da baina 2019ko abuztuan langile honek postuari uko egin dio. Beraz, bitartean kanpo enpresak kontratatu dira urte beteko epean lanpostu honekin zer egin eta nola bete ausnartu arte.

Bestalde, Ibarako Udalak ezinbestekoa izango du HAZ edo herritarrarentzako arreta zerbitzu bat eratzea. Egun administrari languntzaile batek egiten du herritarrei zuzenduriko arreta. Baina kontutan izanik herritarrek aurkezten dituzten dokumentuak dokumentu elektronikoko bihurtu behar ditugula eta herritarrari dokumentazio guztia itzuli behar zaiola (IZFEko programan eskaneatu, dokumentu elektronikoa sortu eta ahal den neurrian herritarraren posta elektronikora igorri behar direla) baliabide informatiko ugari ezarri behar dira (eskanerrak, pantaila bikoitzak, sinadura biometrikoa egiteko tabletak, agian telekomunikazio sarea aldatu beharko da kontestadore automatikoak ezartzeko ezintasunaren aurrean, agian mugikor berriak erosi behar dira sinadurak egin ahal izateko edozein unetan...).

Arreta zerbitzuarekin, herritarrei zerbitzua emateko modua guztiz aldatuko da. Herritarrei erraztasunak ematea du helburu zerbitzua emateko modu honek. Eskaerak presentzialki dokumentu elektronikoko bidez egiteaz gain, telematikoki egiteko aukera ere zabaltzen da. Bestalde, aurrez dauden dokumentuak ez aurkeztea edo beharrezkoak ez diren dokumentuak ez aurkeztea ekarriko du herritarraren mesederako. Baliabide elektronikokoak erabiltzera zuzentzen da zerbitzua eta horretarako ezinbestekoa da formakuntza sakon bat egitea bai arreta emango duen pertsonalarengan eta herritarra ere formatu beharko dugu baliabide teknologikoak erabili ahal izan ditzaten. Bertan egongo den pertsonala iraunkorra izatea gomendatzen da, bertan jaso behar den formakuntza eta eskarmentua handia izango baita (herritarrari zerbitzu eraginkorra emate aldera).

Azkenik zerbitzu honekin beste departamentu batzuetan dagoen lan karga gutxitzea lortu beharko litzateke. Hau da, ahal diren izapide eta kontsulta gehienak zerbitzu honek kudeatu beharko ditu, ahal den heinean eta dagokion formakuntza jaso ondoren. Kalitatezko zerbitzua lortzeaz gain beste departamentu batzuetako kargak gutxitu eta prozedurak arindu beharko lirateke.

Ibarako Udalak, lehen pausoa eman zuen izapideen liburua eginez aurreko korporazio taldearen lana izanik. Baina izapide hauek sistema informatikoan barneratzeko lan taldea, lan orduak eta antolaketa behar da. Banaka banaka izapide guztiak barneratzen joan, espedienteak sortu IZFEko espediente kudeatzailean eta prozedurak bateratu eta egokitzeko lan sakona egin beharrean aurkitzen gara. Horretarako baliabide pertsonal eta lan ordu asko behar direla kontutan hartu behar da. Espediente kudeatzailea egokitzeak suposatuko luke lehen arretan lorturiko datu denak konexioan egongo liratezkeela Ibarako Udaleko programa desberdinetan eta informazio egoki bideratuko litzatekeela (ez liratezke arazoak sortuko kudeatu behar duen departamentua zein den eta nola kudeatu behar duen, dena sistematizaturik egongo baita). Sistema zentralizatu bat sortzera behartua gaude, herritarraren eskubideak bermatzeko eta antolaketa egoki batez legeak esandako baldintza eta betebeharrak betetzeko.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Prozesu hau jarraituz, Ibarako Udalak artxibo elektronikoa barneratzeko egin beharreko lehen lanetako batzuk egin ditu baina beste lan batzuk egiteke dauzka. Kanpo enpresa bat kontratatu zen artxiboan zegoen dokumentazioa husteko eta lehen xahuketa burutu zen. Fase hau aurreko korporazioarekin aurrera eramán zen baina hurrengo pausu batzuk ematea ezinbestekoa da. Departamentu bakoitzean dagoen dokumentazioa garbitu eta artxibatu behar da. Bestalde artxibo departamentalak egiten ari dira eta horiek nola uztartu artxibo orokorarekin prozedimentatzeke gelditzen da. Oraindik kanpo enpresa kontratatu beharrean izango da Ibarako Udala aurrez zegoen artxiboa egokitu eta agian digitalizazio prozesua ere martxan jarri beharko litzateke.

4.- Zerbitzu eta eginkizun berriak barneratzeko beharra:

Lege berriek betebeharrak ekarri dituzte eta honen arira honakoak dira aipagarriak:

- a) **9/2017 Sektore Publikoko Kontratazioa arautzen duen Legearen** baitan, lizitazio elektronikoa barneratu da. Honek dakarrena da lizitazio denak modu elektronikoan kudeatu behar izatea eta bide batez lizitazioan parte hartzen duen kontratazio mahaia ere modu egonkorrean antolatu behar izatea. Kontratazio alorrean egun Ibarako Udalak arazoak ditu, teknikariei zaila egiten zaie legeak eskatzen dituzten baldintza denak betetzea pleguetan txertatu ahal izateko. Kontratazio teknikaririk ez egoteak, Idazkari eta personal administrariak lan hauek bereganatzea dakar eta aldi berean teknikariek esfortzu handia egin behar izaten dute plegu teknikoak burutu ahal izateko eta ondoren plegu admnitratiboekin bateratzeko. Ezinbestekoa da pleguen txantiloak propioak barneratzea eta behingo espediente kudeatzailean plegu horiek egokitu eta protokolizatzea. Aholkularitza juridikoa egiteko denbora ez izateak segurtasun juridiko falta dakar eta teknikariak ezinbestean atzeratzea dakar. Azkenean kontratu legeak eta prozedura administratiboak ezarritako epean gaineratzen zaizkigu eta modu ez egokian ateratzen dira esleipenak. Honi konponbidea ematea ezinbestekoa zaigu.
- b) **19/2013 Gardentasun, Informazio Publikoa eta Gobernu Onaren Legeak eta 2/2016 Euskadiko Tokiko Erakundearen Legeak** arautzen dutenari jarraiki udalek obligazioa izango dute gardentasuna bermatzeko eta bermatuarazteko. Honen baitan, kontratazioko gai denak, aurrekontuak, diru-laguntzak, araudiak, organigramak eta abar argitaratu egin beharko dira. Kasu batzuetan planak burutu beharko dira legeaz eta plan hauen jarraipena egiteaz gain baloratu egin behar da egin dena eta egin ez dena. Bestalde, herritarren partehartzea sustatze alera prozesuak diseinatu, gauzatu eta bermatu behar dira eta horretarako baliabideak ezarri behar dira. Egundun plan horien ardura Idazkariak du baina protokolorizatu eta sistematizatu egin behar ditu teknikarien laguntzarekin informazioa egoki argitaratu eta informazioa lortzeko eta gordetzeko moduak sistematizatzeke.
- c) **2016/679/EBk onarturiko Erregelamendua, apirilak 27koa, Pertsona Fisikoen Datu Pertsonalen Tratamendua eta Zirkulazio Askea arautzen duenak** aldiz betebeharrak

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

berriak ezarri ditu. Hasteko Datuak Babesteko Delegatua izateko obligazioa zehazten du. Egun, dugun plantilarekin ezinezkoa da pertsona berri bat kontratatzea postu hau betetzeko. Bestalde figura honen ezaugarri bereziak direla eta (independientea izan behar du objetibotasunez bere lana burutzeko eta datuen tratamendu eta kudeaketan egon daitezkeen ez betetzeak salatu edo konpontzeko) tratamendu berezia eman behar zaio. Hori dela eta, kanpoko enpresa bat kontratatu da hau aurrera eramateko. Egokiena, egiteko hau barruko langile batek burutzea izango litzateke eta lan hauek egiten dituenean independentzia osoz jokatzeko bermatu beharko litzaiotke. Bestalde, erregelamenduak datuen tratamenduan ere aldaketak ekarri ditu. Orain ezinbestekoa da dauden izapideak aztertuz, datuak sailkatu eta fitxak egitea non adierazten den zein tratamendu egiten zaien, zeintzuk diren hartu behar diren segurtasun neurriak, aurretiazko arriskuen analisia egitea ezinbestekoa da eta azkenik “esquema nacional de seguridad” delakoaren baitan dena protokolizatzea. Horren ardura ere Idazkariak du egun eta enpresa horrekin lankidetzan diardu. Baina gai honetan lan handia egin behar da teknikari eta langile denak formatu eta sentsibilizatuz eta datuen babesaren zaintzan barneratuz. Aztertu beharko da informatikari postuarekin Datu Babesaren delegatu figura uztartu nahi zaion edo ez, baina aurrerago hartu beharreko erabakia litzateke.

- d) **27/2013 Tokiko Entitateen Arrazionalizazio eta Jasangarritasuna legeak** arautzen duenari jarraiki, kontrol eta fiskalizazio betebeharrak gehitu ditu eta gaikuntza nazionalerako funtzionarioei egokitzen die egiteko hori (128/2018 dekretuak xedatzen duen bezala). Honi gehitzen badiogu 424/2017 Errege Dekretuak, Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Barne-Kontrolaren araubide juridikoa arautzen duenaenaren baitan, kontrol eskakizuna are gehiagotu egiten da. Kontuhartzaileak bereganatzen du lan guzti hau eta bertan egin beharrekoak denboran eta baliabideetan asko astuntzen da.

5.- IZFErekin lankidetzan eta bere lanaren eskutik:

Ibarrako Udalak egun dituen programa informatiko denak IZFEen barneraturik daude: erregistroa, zergabilketa, sareko, espediente kudeatzailea, jakinarazpenak, isunak, udaltzainen programak,...

Aipatu beharrean gaude Ibarrako Udalak urteetan informatika alorrean lan gutxi egin duela eta informatika mailan duen atzerapena nabaria dela. Informatikaririk ez izateak soilik mantenu lanak burutzea ekarri du. Espedienteak paperean egin dira orain gutxi arte.

Egun, espediente kudeatzailean langile gehienek parte hartzen dute eta oinarrizko nozioak dituzte (nahiz eta badauden teknikari batzuk espediente kudeatzailea modu bikainean erabiltzen ikasi dutenak formakuntza urriarekin). IZFE aurreratzen doa azken hilabeteetan baina aurrerapen horiei etekina ateratzeko nahitaezkoa da informatikari bat izatea jornada osoz sistema guztiak kontsolidatu bitartean behintzat. Egin beharreko lana ez da soilik mantentzen lan bat baizik programak elikatu behar dira, estruktura informatikoak sortu behar dira eta IZFEk dakartzan

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

berrikuntzak barneratu eta erakutsi behar dira (espedieteen estrukturak sortu, sinadura biometrikoa barneratu, jakinarazpenak egokitu, datu baseak egokitu, gardentasun legeak eskatzen dituen informazioak egoki argitaratzeko oinarriak eta baliabideak ezarri, web orrialdea elikatu eta egokitu, herritarrei telematikoki izapideak egiteko balibideak egokitu....).

6.- Departamentuen estrukturazio berria eta funtzio desagertzeak eta gehitzeak

Ondoren azalduko den analisisan ageri den bezala eta aurrez adierazitako lege aldaketen ondorio bezala, departamentuen estrukturazio berria martxan jartzea derrigorrezkoa egiten zaigu. Bestalde, funtzioa batzuk desagertuz doaz (gehienbat paperezko espedientearekin zerikusia duten funtzioak: adibidez jakinarazpenak paperean egitea...) eta aldiz beste funtzio batzuk gehitu egiten dira (adibidez datu babesaren inguruan, berdintasunaren inguruan, administrazio elektronikoak dakartzan berrikuntzetatik eratorritakoak...).

7.- Brigadan langile bat hartzearen beharra:

IBARRAKO UDALEAN LOREZAIN BAT KONTRATATZEKO BEHARRA

Ibarra brigadari urtean zehar egin beharreko lan guztiak burutzea ezinezkoa egiten zaiola ikusirik, txosten honen bidez arazo hau azaldu eta lorezain bat kontratatzeke beharra adierazi nahi nuke.

Ibarra Udaleko brigada bost langilez osatua dago, brigada burua, argiketaria, lorezaina eta bi igeltsero. Argiketariak eta lorezainak, orokorrean, oso lan espezifikoak dituzte, hau da, argiketaria, argiteri publikoaren eta eraikinen instalakuntza elektrikoaren mantentzeaz arduratzen da, lorezainak berriz, lorategien mantentze lanak egiten ditu.

Zenbait lan egiteko, ordea, bi lagun behar dira, batez ere, langileen segurtasuna bermatzeko, izan ere, horietako lan asko altueran egiten dira eta laguntzaile baten beharra nahitaezkoa da. Lan horien zerrenda honakoa da:

Lorzaintza

- Zuhaitzen inausketak
- Denboraldiko loreak jarri
- Herri bideetako kunetak garbitu
- Lorategien berrikuntza lanak
- Zuhaitzak kendu horrela erabakitzen denean

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA


Argilanak

- Argiteriaren konponketak
- Instalazio berriak egin
- Gabonetako argiak jarri-
- Festetako instalazioak

Egin beharreko lanak ikusita, eta brigadako langile guztien lanak antolatzen dituen brigada buruarekin adostuta, ondorioztatu dugu lorezain bat kontratatzea egokiena izango litzatekeela. Lorezaintzaren inguruan sortzen diren lanak ugariak dira, aurreko atalean zerrendatutakoez gain (altueran laguntzarekin egin behar direnak), auzo konpostaren jarraipena, tratamendu fitosanitarioak, belarrak eta sasiak moztu, lorategiak eta eremu berdeak mantendu, desbrozeak eta abar egin behar dira. Udaberrian eta udazkenean, lan karga handiagoko sasoietan, lorezaintza lanak egingo lituzke langileak, eta gainontzekoetan, horiez gain, elektrikariari lagunduko lioke altuerako lanak egiten. Horrez gain, brigadaren lan orokorretan lagunduko luke, festetako muntaietan eta herriko eragile desberdinek antolatzen dituzten ekintzetan besteak beste. Oro har, egunerokotasunean sortzen diren lanetan lagundu beharko luke.

ANTOLAMENDUA DEPARTAMENTUKA

1.- Ogasuna



2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Kontuhartzailtza:

Egun honako funtzioak dituzte eta honako postuak barneratzen dira bertan:

Kontuhartzailea	Kontrol finantzarioa Aurrekontua Zerbitzuen kostuen analisisa Ordenantza fiskalak Dirulaguntzen eta Pertsonaleko datuen estatura igortzeko ardura Ogasun saileko kudeaketa
Diruzaina	Diruzaintza Zergabilketa kudeaketa
Kontuhartzaileko Administraria	Gastu eta sarreraren kontabilizazioa Fakturak Ordainketa dokumentuen kudeaketa Kontuhartzailtzako administrari funtzioak
Zergabilketa Administraria (1+1)	Errolda fiskalen kudeaketa Tributu-kudeaketa Higiezinaren transmisioak Borondatezko epeko eta enbargu-aurreko exekutiba Isunen kudeaketa (TAO)

Kanporaturik dauden zerbitzuak: Isunen kudeaketa+ Exekutiba (GFA-Ogasuna)

Diagnosiaren baitan honako arazoekin aurkitzen gara eta honako konponbideak aurkitzen saiatu behar gara:

Arazoak:

Zergabilketako antolaketa: zenbait funtzio zuzenean ogasun departamentutik eramango den edo ez argitzea falta da:

- Isunen kudeaketa: Udaltzaingo berriak eta Zergabilketak isunen kudeaketan zein zeregin/noiz arte egingo duten definitzea falta da.
- Zerga-bilketako Herritarren Arreta: Herritarren Arreta zerbitzuak lehen, mailako arreta bezala, eta Zergabilketak, 2. Mailako arreta bezala, zein zeregin/noiz arte egingo duten definitzea falta da.
- Exekutiba nola kudeatu eta zein fasetaraino barneratu
- Ondasunen bahituen izapideak eramaten hastea Udaletik.

Honetarako honako irtenbidea ematen saiatuko gara:

- a) Zergabilketako pertsonala dimentsionatu:

2020/02/18




IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- Zergabilketa, Diruzaintza saileko postu bat **bezala egonkortuz eta sail berean lanpostu erdi bat gehiago sortuz isunak eta zergabilketarako.**

- b) Espediente kudeaketarako izapideak eta izapide horiek zein departamentuk eta departamentutik nork egin behar dituen zehaztea.
- c) Antolakuntza erabakiak hartuz, txertatuz, baloratuz eta jarraipena eginez.
Formakuntzarekin jarraitzea
- d) Kontabilitatean formakuntza espezializatua
- e) Diruzaina eta kontu-hartzailearen ardura eta funtzioei buruzko hausnarketa eta banaketa egitea.
- f) Pertsonalaren finkotasuna.
- g) Egitura fisikoa hobetzeko aukerak baloratu.

2.- Idazkaritza



Idazkaritza:

Idazkaria	Fede publikoa Aholkularitza juridikoa Prozedura administratiboen legezotasuna bermatzea
-----------	---

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

	Udal ondarea Idazkaritza saieleko kudeaketa
Informatikaria	Informatika kudeaketa Espedienteen kudeaketa Erabiltzaileei arreta
Gizabaliabidetako Adm.	Gizarte Segurantza Nomina Lan prebentziorako enpresarekin koordiazioa. Seguruak Hautaketa prozesuak Ordutegi kontrola Kontratazioa
Harrera/Erregistroa	Arreta zerbitzua Erregistroa Biztunen errolda Kexak, abisuak Dekretuak Zergabilketa TAO txartelak Udaletxeko giltzak

Kanporaturik dauden zerbitzuak: Lan prebentzioa eta Inbentarioaren eguneratze lanak

Diagnosiaren baitan honako arazoekin aurkitzen gara eta honako konponbideak aurkitzen saiatu behar gara:

Arazoak:

Idazkaritzan, pertsonal falta eta idazkariari lagunduko dion tekniko baten beharra (hirigintza, kontratazioa, pertsonala arloa) agerian gelditzen da.

Prozedura administratiboetan gabeziak nabaritzen dira eta ondorioz kontsulta asko iristen dira Idazkaritzara

Pertsonal kudeaketan, zalantzak eta legea ondo betetzeko erreferentzia behar da.

Nomina eta Gizarte Segurantzako tramiteak ez ditu beste inork egiten. Gizarte segurantzaren epe barruan egin behar dira tramiteak eta oporraldiak direla edo gaixotasun baxa bat gertatzen bada, arazoak izango litzateke.

Harrera zerbitzua: Askotan zaila egiten da bi gauza batera egitea, hau da, telefonoko deiak atenditu, igual momentu horretan herritarrak mostradorean zain... Desbordatuta batzutan alde hortatik.

Zerbitzu informatikoaren beharra

- Aldaketak azkarregi edo ondo zehaztu gabe egin nahi izatea.

Hilerrri programa ez egokia

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA


Honetarako honako irtenbidea ematen saiatuko gara:

- a) Idazkaritzan, pertsonala errefortzua :
 - **TAG baten beharra**: Hirigintzari babes gehiago, Kontratazioan pleguak berrikusteko, pertsonal arloan ere jakin beharko luke.
 - **Administrari bat**, idazkariak egiten dituen lan administratiboak egiteko.
- b) Aholkularitza juridikoa protokolizatu: kontsulta uneak ezarri, teknikoek gaiak aurrez igorri azterketa eta erantzuna egokia ahalbideratzeko, ...
- c) Bilera ordurak gutxitu edo bestela lan administratiboa gutxitu, biak ezin bait dira egoki egin.
- d) Espediente kudeatzaileari lehentasuna ematea espedienteak protokolizatuz eta horrela teknikariek ez lituzkete horrenbeste galdera eta zalantza izango.
- e) Giza baliabideetako teknikari batekin.
- f) Beste langile batek jakin beharko luke baita ere nomina eta gizarte segurantzako tramiteak egiten
- g) Harrera zerbitzua errefortzatu edo hainbat karga arindu edo bideratu: Beste administrari bat hirigintzan edo beste bat Harreran, piko potente batzuk sortzen direnean.
- h) Telefonía sistema eta erantzunagailu sistema hobetzeko aukerak aztertu.
- i) Administrazio elektronikoa planteatzen dituen beharretara egokitzeko zerbitzu informatikoak definitzea.
- j) Gauzak ongi zehaztu beharko lirateke zerbait berria egin edo inplantatu aurretik, prestatutakoa gero aldatzerakoan askoz denbora gehiago galtzen delako
- k) Hilerriko programa berria eratuz

*3.- Lurraldea, Iraunkortasuna: Hirigintza/ Obra eta Zerbitzuak/
Ingurumena, Nekazaritza, Merkataritza*



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA



Hirigintza:

Arkitektoa	Planeamendua Udal hondarenaren egoeraren ikuskaritzak Apatta Poligonoko planeamendua eta jardueren jarraipena Obra haundien lizentziak Obra Proiektuak Eraikinen ikuskaritza teknikoak
------------	---

Kanporaturik dauden zerbitzuak: Apatta industrialdeko kudeaketa (Mankomunitatea)

Diagnosiaren baitan honako arazoekin aurkitzen gara eta honako konponbideak aurkitzen saiatu behar gara:

Arazoak:

Lan administratiboa arintzeko beharra eta bere ondorioak:

- Jakinarazpenak: Espediente kudeatzailearekin tramitea zaildu egiten da, fisikoki ere jakinarazpena prestatu eta bidali behar da.
- Bulegoko artxiboa eramateko pertsonala falta.
- Atzerapenak: herritarren eskaerak, lizentzietan, espedieak itxi gabe, IT-Eraikinen ikuskaritza, Apatta poligonoko jarraipena...

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- Lana tekniko ateratzeko denbora falta: legeak interpretatu eta zuzen aplikatzeko denbora behar da. Proiektuak ondo eramateko. Ordenantzak egiteko (ordenantzek lana erraztu dezakete). Urterako aurre ikusten diren obrak aurrera ateratzeko zailtasunak (urte batetik bestera egin gabe gelditu izan dira).
- Lan bikoizketa: Papera eta digitala batera. Espediente kudeatzailea martxan jartzea aurretik oinarriak zehaztu gabe.

Formaziorako denbora falta. Nahasketa eta deskoordinazioa zenbait espediente edo lan ardura noren gidaritzapean diren zalantzak daudelarik

Honetarako honako irtenbidea ematen saiatuko gara:

- a) **Administrari bat konpartitzea** (Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena departamentuekin):
- b) Laguntza:
 - Lan administratiboa arindu.
 - Laguntza juridiko egonkorra hirigintza, zerbitzuak (jarduera sailkatuak batez ere) eta ingurumenerako (15ean behin).
 - Espediente kudeatzailea ondo egotea.
- c) Udaltzain zerbitzuarekin lan batzuk berantolatu

Ingurumena, Nekazaritza eta Merkataritza:

Ingurumen Teknikaria	Ingurumen, merkataritza eta nekazaritza batzordea Tokiko Agenda 21 Herri bideak Hondakinak Lorezaintza diseinua eta lanen jarraipena Izurriteen kontrola Argiteri publikoan energia kontsumoa eta argi kutsadura murrizteko neurriak Landa eremuan ematen diren zerbitzuen jarraipena Errekaren ur kalitatearen egoera ona sustatu eta jarraitu Sensibilizazio kanpainak Dirulaguntzak
----------------------	--

Kanporaturik dauden zerbitzuak: Hondakinen bilketa (Mankomunitatea) Garraio publikoa (Mankomunitatea)Izurriteak eta arratoiak hiltzea

Diagnosiaren baitan honako arazoekin aurkitzen gara eta honako konponbideak aurkitzen saiatu behar gara:

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Arazoak:

Zalatzak eta nahasketa eta deskoordinazioa dago espediente edo lan ardura noren gidaritzapean dagoen jakiteko

Jarduera Sailkatuen gaian, zenbait arlotan ingurumenak parte hartu beharko luke, koordinazio lan baten bitartez (obra eta zerbitzuarekin partekatuz)

Hiri-hondakinen txartel berriaren bila datozen herritarrei arreta egiteak denbora asko darama.

Honetarako honako irtenbidea ematen saiatuko gara:

- a) **Administrari bat konpartitzea** (Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena departamentuekin):
- b) Laguntza:
 - Lan administratiboa arindu.
 - Laguntza juridiko egonkorra hirigintza, zerbitzuak (jarduera sailkatuak batez ere) eta ingurumenerako (15ean behin).
 - Espediente kudeatzailea ondo egotea.
- c) Udaltzain zerbitzuarekin lan batzuk berantolatu
- d) Hirigintza, zerbitzuak eta ingurumen sailen koordinazioa hobetu edo Koordinazio bilerak, zuendaritza batekin. edo medio bateratuak hiru departamentuentzako.
- e) Herriko hiri-hondakinen edukiontzi marroiak eta grisak irekitzeko txartelak aktibatuzko zerbitzua behe solairuan egotea litzateke egokiena, ahalik eta zerbitzu azkarrena eta erosoena eskaintzeko
- f) Ingurumenari dagozkion lanak, ingurumen departamentuak bere gain hartuta, Hirigintza zein Obra eta Zerbitzuak departamentuekin koordinazioa areagotuta.

Obra eta Zerbitzuak :

Arkitekto Tek. /Aparejadorea	Obra eta jarduera lizentziak tramitatu Udal eraikinen eta etxebizitzien mantentzea, segurtasuna, irisgarritasuna Urbanizazio proiektuak eta obrak, segurtasuna Zerbitzuen kontratazioa eta jarraipena: kale garbiketa, eraikinen garbiketa, hilerriaren kudeaketa Bide publikoaren okupazioa Herritarren eskaera eta kexei erantzuna Brigadaren igeltseritza lanak kudeatu Erosketa txikiak eta bulego materialaren kudeaketa
------------------------------	--

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Kanporaturik dauden zerbitzuak: Kale garbiketa, Udal Eraikinen garbiketa, Hilerriaren kudeaketa

Diagnosiaren baitan honako arazoekin aurkitzen gara eta honako konponbideak aurkitzen saiatu behar gara:

Arazoak:

Lan administratiboa arintzeko beharra eta bere ondorioak:

- Jakinarazpenak: Espediente kudeatzailearekin tramitea zaildu egiten da, fisikoki ere jakinarazpena prestatu eta bidali behar da.
- Bulegoko artxiboa eramateko pertsonala falta.
- Atzerapenak: herritarren eskaerak, lizentzietan, espedieak itxi gabe, IT-Eraikinen ikuskaritza, Apatta poligonoko jarraipena...
- Lana tekniko ateratzeko denbora falta: legeak interpretatu eta zuzen aplikatzeko denbora behar da. Proiektuak ondo eramateko. Ordenantzak egiteko (ordenantzek lana erraztu dezakete). Urterako aurre ikusten diren obrak aurrera ateratzeko zailtasunak (urte batetik bestera egin gabe gelditu izan dira).
- Lan bikoizketa: Papera eta digitala batera. Espediente kudeatzailea martxan jartzea aurretik oinarriak zehaztu gabe.

Formaziorako denbora falta. Nahasketa eta deskoordinazioa zenbait espediente edo lan ardura noren gidaritzapean diren zalantzak daudelarik

Jarduera Sailkatuen gaian, zenbait arlotan ingurumenak parte hartu beharko luke, koordinazio lan baten bitartez (obra eta zerbitzuarekin partekatuz)

Honetarako honako irtenbidea ematen saiatuko gara:

- a) **Administrari bat konpartitzea** (Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena departamentuekin):
- b) Laguntza:
 - Lan administratiboa arindu.
 - Laguntza juridiko egonkorra hirigintza, zerbitzuak (jarduera sailkatuak batez ere) eta ingurumenerako (15ean behin).
 - Espediente kudeatzailea ondo egotea.
- c) Udaltzain zerbitzuarekin lan batzuk berantolatatu

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

d) Ingurumenari dagozkion lanak, ingurumen departamentuak bere gain hartuta, Hirigintza zein Obra eta Zerbitzuak departamentuekin koordinazioa areagotuta

Brigada:

Obra Arduraduna	Brigadaren antolaketa eta koordinazioa Ekitaldien koordinazioa eta muntaia Obretako baliabideak eskuratu Udal eraikin eta etxebizitzaren mantenua Ibilgailu eta baliabideen mantenua eta erosketa Herritarrei udalaren gertutasuna erakutsi
Argiketaria	Argiteri publikoaren mantenua eta hobekuntzak Herriko ekintzetan azpiegiturak prestatu Eraikinetako inspezio teknikorako rebisioak Udal eraikinen mantenua. Kaldereritza lanak Arduraduna ordezkatu
Igeltseroa	Igeltseritzako mantenu orokorra Eraikin publikoen mantenua Herriko ekintza ezberdinetako muntaiak Kamioi gidaritza Liztor asiakoaren ezabaketa
Lorzaina	Jardinetako mantendua eta hobekuntzak Konposta Herriko ekintza ezberdinetako muntaiak
Obra-Zerbitzuko langilea	Ekitaldietan muntaiak Brigada laguntza

Diagnosiaren baitan honako arazoekin aurkitzen gara eta honako konponbideak aurkitzen saiatu behar gara:

Arazoak:

Brigadan, langile gutxi behar guztiei aurre egiteko.

Brigadan laguntzaileak hartzen dituztenean ez dira elektrikariak (momentuz borondate ona bai). Elektrizitateko lanak egiteko bakarrik askotan

Brigadan, planifikazioa eta komunikazio falta: kumunikatzeko bideak ere indartu (biltegian ez dago internetik, ez eta iragarki taularik.....).

Inbertsioak urtea aurrera jo ala erabakitzea.


2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Zenbait lan egiteko baliabide materialak ez egokia: Grua behar denean beste lankideen menpe (beste lanak utzi behar dituzte).

4.- Gizarte Zerbitzuak



Gizarte Langilea	Sailaren kudeaketa Herritarrekin elkarhizketak informazioa, zerbitzuen jessioak ea. eta etxeko bixitak Koordinazio lana Eskaera eta espedienteen tramitazioa
Adm. Lag Gizarte Zerb.	Gizarte zerbitzuko administrazio lanak Zizkidurako bizitokiak Herritarrekiko lehen arreta

Diagnosiaren baitan honako arazoekin aurkitzen gara eta honako konponbideak aurkitzen saiatu behar gara:

Arazoak:

Zuzkidurako bizitokiak ez da gizarte zerbitzuetako bezeroei zuzendutako zerbitzu bat, gazteei orohar hartuta baizik eta gizarte zerbitzutik

Honetarako honako irtenbidea ematen saiatuko gara:


2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Eskumenak eta nola bideratu modu egokienean aztertu (gaztedi, obra eta zerbitzuak,...)

5.- Kultura



Kultura-Gazteria Teknikaria	Sailaren kudeaketa Kultura eta gazteria arloen sustapena eta kudeaketa Kultura ekipamenduak kudeatzea Jarduera soziokulturalak eta aisialdikoak antolatzea Herriko jaiak antolatzea Kultura ondarearen babesa Arloko diru-laguntzak kudeatzea.
Liburuzaina	Liburutegiko antolaketa Jendeari informazioa eta aholkularitza Mailegu zerbitzua Liburutegiko sustapena Fondoen kudeaketa eta erosketa
Adm. Lag. Kultura-Gazteria	Kultur etxeke arreta Kultur etxeke erabileren prestaketa Kultur lantegien kudeaketa administratiboa (matrikulak, ...) Erregistro zerbitzua Kanpoko lokalen kudeaketa Gazteri lan administratiboetan laguntza



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Diagnosiaren baitan honako arazoekin aurkitzen gara eta honako konponbideak aurkitzen saiatu behar gara:

Arazoak:

Kultur etxean, pertsonal gabeziak, eskaini nahi den ordutegi eta zerbitzurako:

Kultur Etxeko eraikin osoan hiru langile egoteak zerbitzua asko mugatzen du (4 solairu, hiru langile). Hori dela eta kontziliazioa ezinezkoa da eta behar eta zeregin pertsonaletarako denbora eza nabarmena da. Langileen baimen edo ezusteko egoerek zerbitzuan eragin zuzena dute.

Aholkularitza eta formazio handiagoa behar da, gehien bat arlo administratiboa eta juridikoan

Honetarako honako irtenbidea ematen saiatuko gara:

Kultura eta Gazteria Departamentuko azterketa eta diagnosi zehatz bat burutzea eta horren ondorioz antolaketa definitzea:

- Eskaini beharreko zerbitzuak
- Kultur etxeko banaketa fisikoa.
- Ordutegiak.
- Langile kopurua.

Lanpostuen ordezkapenak eta kontziliatzeko aukerak.

- Formakuntzarekin eta segurtasun juridikoa duen aditu batekin.
- Elkartruckerako foroak

6.- Udaltzaingoa



2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Udaltzaina	(legeak ezarritako funtzioak) Zerbitzua hasi berria da.
------------	--

Diagnosiaren baitan honako arazoekin aurkitzen gara eta honako konponbideak aurkitzen saiatu behar gara:

Arazoa:

Udaltzaingo zerbitzu berriaren osaketa.


Honetarako honako irtenbidea ematen saiatuko gara:

• Ezarpen plana:

- Udaltzainburu funtzioen beharra.
- Zerbitzuaren lehentasunak ete eredu argitu.
- Protokoloak eta prozedura administratiboak finkatu eta beste departamenduekin harremana uztartu, berak hasitako lanari jarraipena emateko (mugikortasuna, animaliak, hondakinak, bide publikoko okupazioa, kaleko salmentak, obren ikuskaritza...)
- Baliabide materialak eskuratzen joan:
 - Talonarioak
 - Komunikazioak (enkriptazioa)
 - Hiritarren harretarako bulegoa egokitu
 - Zepoa (autoak ibilgetzeko)
 - Garajea egokitu.
 - ...

Lanbaldintzen inguruan zalantzak argitu (formakuntza eta lanaldia, sailkapen taldea, trienioak

7.- Euskara eta Hezkuntza



2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Euskera-Hezkuntza-Kirola Tenikaria	Sailaren kudeaketa Udaleko hizkuntza politikaren kudeaketa Udal langileen hizkuntzaren erabilera planak Udalerriko hizkuntza normalizazioa Kiroldegiaren kudeaketa Hezkuntzaren koordinazioa Arloko diru-laguntzak kudeatzea
Itzultzaile-Interpretea (75%)	Dokumentazioaren itzulpena-zuzenketa Osoko bilkuretan interpretazio lana egitea Itzulpena kanpoko elkarteei Hizkuntzari buruzko kontsultak Langileen trebakuntza

Diagnosiaren baitan honako arazoekin aurkitzen gara eta honako konponbideak aurkitzen saiatu behar gara:

Arazoa:

Itzulpen prozesuaren definizioa

Itzulpena egiteko denbora zehaztuta egon arren, beti daude presako agiriak, presaz egin beharrekoak, eta hori hobeto kudeatzea komeni da.

Honetarako honako irtenbidea ematen saiatuko gara:

Itzulpen Protokolo zehatza definitu behar da itzulpenak jarraitu beharreko prozesuaz. Bestade, ondo definitu behar da zer itzuli behar den eta zer ez, askotan teknikoaren baitan gelditzen baita, edo bileretan zehaztuta egon arren, ez baita erabakia errespetatzen


DIAGNOSIA KONTUTAN IZANIK UDALAK HARTZEN DITUEN ERABAKIAK

Honako organigrama proposatzen da:

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA



Diseinu irizpide bezala honakoa zehazten da: Zuzendaritza funtzioa sendotzea, barne koordinazioa indartzea, zeharkako ikuspegia eta talde-lanaren kultura bultzatzea eta horretarako Koordinazio Taldea formalki eratzea. Orain arte Alkatezarekin, Idazkaria eta Kontuhartzaileek egiten zuten koordinaketa areagotuz.

Hiritarrekiko harremana erraztu eta arreta zerbitzu integralagoak ematea, horretarako HAZ zerbitzua bultzatuz

IV GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMAREN NEURRIAK

NEURRI NAGUSIEN LABURPENA

1.- Aurreikusten da datozen urteetan aurrejubilazio batzuren aukera, eta kontuan izanda administrazio elektronikoaren erronkak etab, udalak bultzatu nahi du aurrejubilazio politika bat, zerbitzu publikoaren mesede eta efizientzian pentsatuta. Hori horrela izanda, udal

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

honek bideragarri ikusten du aurrejubilazioak sortutako galera patrimonialaren konpentsazioa bideratzeko, garaian garai indarrean egongo den hitzarmen kolektiboak jasotzen dituen indemnizazioen ordainketa.

2.- Saillkapen taldeen homogeneotasuna lortzea kriterio berdina erabiliz: saillkapen taldeen arabera egiten den banaketa, ez da modu homogeneo edo bateratu bat erabiliz egin, lan beharrak sortu dituzten egoerak direla eta postuak sortzen joan dira eta kriterio bateratua erabili gabe sailkatu dira talde desberdinetan. Bestalde, egin diren izendapenak ez datoz bat egun lanpostuen zerrendan barneratu diren saillkapen taldeekin. Ondorioz, egoera bateratu eta homogeneoa erabiliz zuzenketak egin behar dira.

Bestalde, egun administrari laguntzaile figura ez dator bat egiten diren funtzio eta ardurekin eta udalaren beharrei aurre egiteko saillkapen talde bakarra, administrari taldea, sortzea egokiagoa litzateke. Administrari denak modu berean prestatu eta polibalentzia sortzeko. Modu honetan, administrari postu desberdinak bete ahal izango dira udalaren eta zerbitzuen beharrei aurre egiteko.

Analisia egin ondoren ondorioztatzen da, karrerazko funtzionario urritasuna dagoela alde batetik eta beste alde batetik aurrejubilazio eta behar berriei aurre egiteko aurrerantzean sortuko diren plazak modu egokian sailkaturik sortu behar direla. Honen arira eta aipaturikoa kontutan izanik administrari laguntzaile postu horiek desagertzen joan behar direla eta plantilan postu horiek betetzen dituzten langileek sortu behar diren administrari postuetara egokitu behar direla. Aipatutako guztia kontutan izanik honakoa burutu beharko litzateke:

- i. Erantzunkizunaren arabera sailkatu beharko litzateke A1 eta A2 taldea:
 - a. A1 taldean honako postuak barneratu beharko liratezke (kontutan izanik lehen 3ak legez gaikuntza nazionalako postuak izanik A1 taldekoak bezala sailkatzen direla eta Arkitektoa 3 zerbitzu desberdinenetako buru izendatuko dela)
 - i. Kontuhartzailea
 - ii. Diruzaina
 - iii. Idazkaria
 - iv. Arkitektoa
- ii. Aldiz, teknikari guztiak bere titulazioa kontutan izan gabe A2 taldean barneratu beharko liratezke:
 - a. Euskara eta Hezkuntza teknikaria

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- b. Ingurumen Teknikaria
 - c. Itzultzaile-Interpretea
 - d. Arkitekto-Tekniko-Aparejaorea
 - e. Liburuzaina
 - f. Gizarte Langilea
 - g. Kultura-Gazteria Teknikaria
 - h. Informatikoa (programa bidezko funtzionarioa)
- iii. Administrari laguntzaile postuak ahal den neurrian eta faseka (gero adieraziko den bezala) administrari postuetara bilakatu beharko liratezke

C1 taldean denak barneratu:

- a. Administraria (Kontuhartzaitza)
 - b. Administraria (Giza Baliabideak)
 - c. Administraria (Zergabilketa)
 - d. Administraria
 - e. Lehen Agentea
 - f. Agentea (3)
 - g. Kiroldagiko zuzendaria
 - h. Administrari Laguntzailea (errola eta artxiboa)
 - i. Administrari Laguntzailea (erregistroa)
 - j. Administrari Laguntzailea (diruzaintza)
 - k. Administrari Laguntzailea (ongizatea eta idazkaritza)
 - l. Administrari Laguntzailea (kultura eta gazteria)
 - m. Administrari Laguntzailea (programa bidezko funtzionarioa)
- iv. Modu berean, C2 taldea ere bateratu egin beharko litzateke, E taldea desagertuz. Modu honetan langile denak egoera berdinean aurkituko liratezke eta sailkapen talde bakar eta homogeen egongo liratezke

C2 taldean barneratuz denak:

- a. Obra arduraduna
- b. Lorezaina
- c. Argiketaria
- d. Obra eta zerbitzu langilea
- e. Eginkizun anitzeko langilea



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- f. Alguazila (desagertzera doan postua polizia gorputzarekin ez bateragarria)
- g. Obra eta zerbitzuko langilea

Bateratze hau lortzeko honako eragiketak egitea proposatzen da:

a. Aurreikusten da 4 administratibo plaza sortzea:

- a. Idazkaritza %50eko jardunean administratibo plaza sortzea: %50 HAZ (herritarraren arreta zerbitzura bideratua). Plaza hau egun programa bidez kontraturik dagoen pertsonalak beteko du eta ez da plaza aterako oraingoz, ikusi arte benetan hau den edo ez HAZ zerbitzuaren beharrak betetzeko beharrezkoa den jardunaldia.
- b. Ongizate zerbitzurako administrari postua sortzea: ongizate departamentuan departamentuko behar eta legea ekarri dituen zerbitzu berri eta eskaerei aurre egiteko. Postu hau barne promozio bidez beteko litzateke egun Ibarra Udalean karrerazko funtzionario diren administrari laguntzaileei aukera emanez, prozesua gaindituz gero, postu hau jabetzen lortzeko. Postua egun administrari laguntzaile diren langileetako batek jabetzen lortuz gero, administrari laguntzaile postua desartuko litzateke.
- c. Erregistroko administrari postua sortzea: HAZ zerbitzua aurrera eramateko ezinbestekoa da administrari postua sortzea. Aurrez sortzen den administrari postuarekin eta administrari postu honekin HAZ zerbitzua bi administrariarekin doituko litzateke. Berain espezializaio maila dela eta ezinbesteko da administrari funtzioak egikaritzea eta horrek dakarren erantzunkizunak ere bereganatzea. Postu hau barne promozio bidez beteko litzateke egun Ibarra Udalean karrerazko funtzionario diren administrari laguntzaileei aukera emanez, prozesua gaindituz gero, postu hau jabetzen lortzeko. Postua egun administrari laguntzaile diren langileetako batek jabetzen lortuz gero, administrari laguntzaile postua desartuko litzateke.
- d. Hirigintzako administrari postua sortzea 100% jardunaldiarekin: ikusirik, Idazkaritza departamentuan lan administratiboa ugaritu egin dela eta departamentuak doitzeko nahiarekin hirigintzako administrari postu bat



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

sortuko da. Postu honek barneratuko ditu egun idazkaritzak; hirigintza, obra eta zerbitzuak eta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza departamentuek arira egiten dituen lan administratiboak. Bestalde, idazkaritza departamentuan egiten den berrantolakuntza handia dela eta (eta kontutan izanik bi administrari aurrejubilatuko direla hurrengo 2 urteetan, dagoen estrukturak eskatzen duelako beste antolaketa berri bat egitea) egungo administrari hauen funtzio batzuk bereganatuko ditu. Hori da, idazkaritzan HAZ zerbitzuan %50 jardunaldian administraria ezartzearen arrazoi nagusia. Beraz, figura berri honek, printzipioz idazkaritzaren lan administratibo zati hastun bat barneratuko baitu. Hau horrela izanik, honako funtzio hauek egingo dituela aurreikusten da:

<p>Hirigintza Administrariaren funtzioak</p>	<p>Departamentuko gaien (izapideak, kexak, iradokizunak,...) sarrera erregistro elektronikoa jaso (baliabide teknikoak uzten dutenean).</p> <p>Cd-etako edukia konprobatu, agiriak eskaneatu eta espediente kudeatzailean sartu.</p> <p>Bulegora jotzen duten pertsona guztiak atenditzea bai telefonoz bai aurrez aurre, teknikariaren beharra balego honi bideratuz.</p> <p>Espedienteen jakinarazpenak, sailetik ateratzen diren gutunei/agiriei irteera erregistroa emanez eta interesatuei bidaliz.</p> <p>Espedienteen likidazioak jakinarazi (obrak, ...)</p> <p>Obra handien lizentzietarako lan administratiboa, errekerimenduak agiriak osatzeko, jardueretan ingurumen organoari eta sanidadekoei txostenak eskatu, jakinarazpenak prestatu, abalen jarraipena,.</p> <p>EIT erregistroa eta eraikinen egoeraren jarraipena eta errekerimenduak bidaltzea.</p> <p>Hondakiinen txartelak banatu eta erregistro programaren jarraipena.</p> <p>Departamentuko artxiboa. Paperezko espedienteen departamentuko artxiboa osatu Bulegoko materialaren kudeaketa</p> <p>Lanpostuari dagozkion beste administrazio lanak egitea</p> <p>Artxibo orokorreko kudeaketa eta mantenua</p> <p>Hilerriko erregistroa.</p>
--	--

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

	Higiezin naiz altzarietan jasandako erreklamazio eta istripuen Espedienteak. Departamentuko kontratazio espedienteen lan administrazioa. (Lizitazio elektronikoa, profila, adjudikazioa eta kontratuaren erregistroa idazkaritzatik.)
--	--

* Ondorioz, hirigintzako administrari postu berri honek etorkizuenean adieraziko digu alde batetik HAZ zerbitzuan %50 lanaldiarekin ezarriko den lanpostuaren jardunaldia nahikoa den edo behar gehiago izango duen eta beste alde batetik argi geratzen da egun idazkaritzan dauden errolda-artxibo administrari laguntzaile postuaren funtzio asko bereganatzen dituela (hilerria eta artxiboa...) eta beste alde batetik egun gizabaliabideetako administrariak dituen beste funtzio batzuk ere bereganatzen dituela (kontratazioko lan administrazioa, higiezin eta istripuen espedienteak...)

*Adierazitakoa kontutan izanik, Dekretu 190/2004, urriak 13ak, zeinak Euskal Administrazio Publikoko langile funtzionarioen lan postuen probisioa erregelamendua arautzen duen bere 42. Artikuluan adierazi bezala udalak erabaki ditzazke giza arrazionalizazio plan baten barnean aurre erretiroa hartzeko inzentiboak ematea langileei. Idazkaritzako egoeran ezinbestekoa da aipaturiko bi langilei (errolda-artxibo administrari laguntzailea eta giza baliabideetako administraria) inzentiboak ematea beraien aurre erretiroa hartzeko eskubidea egikaritu dezaten, berrantolaketa berriaren aurrean hartu beharreko erabaketan ez baitute beraien egun funtzioek estaldura nahikorik.

b. Ibarra Udalak 2016. urtean Enplegu Publikorako Eskaintza burutu zuen eta bertan lorazain postua eskaintzen zen. 2019. urtean amaitzen da Enplegu Publikorako Eskaintza (3 urterako indarraldia baitute Enplegu Publikorako Eskaintzak). Ondorioz, derrigorrez 2019ko Enplegu Publikorako Eskaintzan postu hori eskeini beharko da.

Beraz aldaketa guztiak barneratzeko lehen fase honetan honako neurriak hartuko liratezke zehazki:

2019 eta 2020. urteko plantila organikoan honako aldaketak burutu:

1.- Idazkari, Kontuhartzaile, Diruzaina eta Arkitektoa A1 taldean barneratuko dira. Postu hauek modu honetan sortuak daude. Arkitektoaren kasuan jabetzan du postua eta beste 3 postuak gaikuntza nazionalako postuak dira eta hutsik aurkitzen dira egun, nahiz eta 2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

bitarteko funtzionario bidez betetzen diren. Gaikuntza nazionalako postuetan eskuduntza Gipuzkoako Aldundiak du Ibarra Udalaren kasuan. Berari dagokio postu hauek betetzea eta kudeatzea. Beraz postu hauek ez dira 2019ko lan eskaintzan eskaintzen. Horretarako Aldundiak beste prozesu esa lan eskaintza prozedura berezia du.

2.- Teknikari denak A2 taldean ezarri denak eta estabilizatu.

- 3 jabetzakoa eratuak daude eta postuak beteak daude: gizarte langile teknikaria, kultura teknikaria eta liburuzaina

- 3 teknikari postu modu honetan sortuko dira: tokiko entitate batetako lanpostuen ezaugarrien aldaketa lanpostuen zerrendaren bidez burutu behar da, hau baita Administrazio Publikoak, bere autonomia eta autoantolakuntza ahalmenaren baitan, duen tresna teknikoa giza baliabideen antolakuntza efektiboa burutzeko. Beraz, tresna honekin benetako beharrei erantzuteko mugimenduak burutu ditzazke. Ondorioz, plana sortu, benetako beharrei erantzuten ez dieten plazak kendu edo errealitatera egokitzeko plazetan aldaketak burutu ditzazke beti ere aurrekontuak hau egiteko aukera ematen baldin badu. Beraz, mugimendu hauek aurrekontura baldintzatuak gelditzen dira. Beraz A1 taldetik A2 taldera plazak birmoldatzeko mugimenduak lege barruan egiten dira. Ibarra Udalak alde batetik mugimendu honekin lortu nahi duena da postu bakoitzari dagokion formakuntza egokitzea eta ez postua betetzen duen teknikariaren formakuntzaren arabera sailkapen bat edo bestean barneratzea postu horren ezaugarriak. Bestalde, teknikari denak talde berean bateratuko liratezke. Egun lanpostu hauek bitarteko funtzionario bidez betetzen dira baina Dekretu Legegile 5/2015 art. 14. artikulua adierazten duen bezala (Langile Publikoen Oinarrizko Estatuto Legearen testu bateratua onartzen duenak) soilik karrerazko funtzionarioek dute mugikortasun ezaren bakarkako eskubidea. Ondorioz, bitarteko funtzionarioek ez dute administrazioak mugikortasuna eman behar denaren kasuan eskubide berezirik. Baina ere ez legoke arazorik, postu hauek bitarteko funtzionario bidez betetzeko baldin eta langile hauek postu horrek eskatzen dituen beharrezko baldintzak betetzen baditu eta beti ere muga bezala karrerazko funtzionario bidez postu hori bete bitartean.

Beraz aipatzen diren postu hauetan A1 taldetik A2 talderako mugikortasuna sortuko da Ibarra Udaleko beharrei erantzuteko:

- o Ingurumen teknikaria: A2 taldean sortzen den postua izango da eta A1an klasifikaturik zegoen postu hau desagertu egingo da. Postu hau oposaketa askean aterako den postua izango da. (2019ko estabilizaziorako lan eskaintzan sartuko da)

- Euskara eta Hezkuntza teknikaria: A2 taldean sortzen den postua izango da eta A1an klasifikaturik zegoen postu hau desagertu egingo da. Postu hau oposaketa

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

askean aterako den postua izango da. (2019ko kontsolidazio lan eskaintzan sartuko da) postu hau horrela aterako da Euskara eta Hezkuntza teknikaria.

- o Itzultzaile-Interpretea: A2 taldean sortzen den postua izango da eta A1an klasifikaturik zegoen postu hau desagertu egingo da. Postu hau oposaketa askean aterako den postua izango da. (2019ko estabilizazionarko lan eskaintzan sartuko da)

· Arkitekto tekniko-aparejadorea: A2 taldean sortua dago postu hau eta horrela aterako da oposaketa askean 2019ko estabilizazioarko lan eskaintza barruan. Egun bitarteko funtzionario bidez betetzen da postua.

A1 taldetik A2 taldera birklasifikatzen diren lanpostu hauek ez dute inolako aurrekontuaren
1. Kapituluaren handikuntzarik suposatuko.

3.- Administrari postuak:

· 2 jabetzakoak jada eratuak daude eta postuak beteak daude: pertsonal administraria eta kontuhartzaitzako administraria (hauek berdin mantentzen dira)

· 1 administrari postu sortua dago baina egun hutsi dago bitarteko funtzionario batek betetzen duelarik: zergabilketako administraria (2019ko estabilizaziorako lan eskaintzan barneratuko da)

· 2 administrari postu sortu erreserbarekin: (2019ko lan eskaintzan sartuko direnak)

- Postu hauek sortuko dira Udalak behar estrukturalak dituelako. TREBEP eko 14. artikulua baita barne promozioa langile publikoen eskubide bat da non azpi taldean dagon langileari aukera ematen zaion goiko taldeko postua lortzeko. Hautaketa prozesu hau Konstituzioak agintzen dituen printzipioen baita (berdintasuna, meritua eta gaitasuna) egin behar da eta eskatuko da gutxienik azpiko taldean 2 urteko aintzintasuna izatea eta dagozkion hautaketa frogak gainditzea. Araudiaren arabera, konkurtso-oposaketa sistema bidez egingo da konkurtso fasean baloratuko dira karrera eta egikaritu dituzten postuetako meritua, baita formakuntza eta aintzintasuna ere. Erreposizio tasari dagokionez, 2 postu hauen sorrerak ez du muga hau gainditzeko. Hau da, barne promozio bidez postuak betetzean ez da erreposizio tasa aplikatu behar. Tasa hau soilik aplikatuko da Lan eskaintza publikoan sartu nahi diren plaza hutsetan. Kasu hauetan bai kontutan izan behar da erreposizio tasa.



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Barne promozio bidez sortzen diren bi lanpostu hauek ez dira aurrekontuko 1. Kapituluaren kubritu behar, administrari laguntzaile bi jabetzako lanpostu baitira ekonomikoki aurreikusitakoak. C2 taldetik C1 taldera dagoen koste ekonomikoa lan postuaren udalaren antolakuntzaren ondorio da eta beraz soldata masaren muga ez da aplikagarria.

§ HAZ zerbitzurako administraria postuaren sorrera: zerbitzu berria da eta administrazio elektronikoa herritarren zerbitzura ezartzeko sortzen da postu hau. Postu honetan zentralizatuko dira herritarren lehen zerbitzuak eta arreta. Beraz, derrigorrez kualifikazio maila duen postu bat eratzea eskatzen da (espediente kudeatzailean erabilera, errolda, artxiboaren zaintza eta kudeaketa, erregistroen ardura...). Postu hau erreserbatu bezala sortuko da, beraz, soilik barne promozio bidez betetzeko erreserba izango du. Ondorioz, esperientzia duten karrerazko administrari laguntzaileentzako erreserbatua geldituko da duten formakuntza eta lan esperientziaren beharra dugulako postua betetzeko. Kasu honetan plantilan ezarri beharko da erreserba duela barne promoziorako eta administrari laguntzaile postuetako bat desagertu egingo dela administrari postua betetzen den unean.

§ Gizarte zerbitzuetarako administrari postuaren sorrera: Gizarte zerbitzuei dagokionez, Gipuzkoako Aldundiak arlo honetan apostua egin du eta arlo honetako legeren baitan zerbitzu berriak emateko obligazioa dugu. Zerbitzu hauek emateko espezializazioa duten administrariak behar dira eta administrari laguntzaile batek ezingo luke bertan hartu behar diren erantzunkizunei aurre egin. Postu hau erreserbatu bezala sortuko da, beraz, soilik barne promozio bidez betetzeko erreserba izango du. Ondorioz, esperientzia duten karrerazko administrari laguntzaileentzako erreserbatua geldituko da duten formakuntza eta lan esperientziaren beharra dugulako postua betetzeko. Kasu honetan plantilan ezarri beharko da erreserba duela barne promoziorako eta administrari laguntzaile postuetako bat desagertu egingo dela administrari postua betetzen den unean.

- HAZ zerbitzurako administrari plaza sortu %50eko jardunaldian: administrari postu hau %50eko lanaldiarekin ateratzen da printzipioz. Hirigintzako administrari postu berriak eta egingo diren aldaketa berriek balditzatuko dute etorkizunean postu hau %50 edo lanaldi handiagoan atera behar den. Gutxienez 2 edo 3 urte beharko dira postu horren funtzioak egoki zehazteko eta ondorioz egun ez da egokia postu hau oposaketa aske bidez ateratzea. Zehaztu bitartean, egun programa bidez kontraturik dagoen bitarteko administrariak beteko du (herritar arrera zerbitzu ordutegian behintzat postu honetako lanak burutuko dituelarik) ikusi arte beste departamendua desberdinen antolakuntza berrietatik zer eratortzen den eta zein funtzio izendatzen diren HAZ zerbitzura. Lanpostu berri honek ez du kostu gehigarririk suposatzen, dagoeneko programa bidezko langilearen kostuari baitagokio.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

§ Hirigintza, Obra eta zerbitzu, ingurumen, merkataritza eta nekazaritza saileko administrari lanpostua sortu. Dagoeneko aipatu diren funtzioak izango ditu. 2019ko erreposizio tasari lotua dago, diruzaintzako administrari laguntzaileanaren amortizazioari lotua, 2019ko ohiko OPEan barneratzen delarik.

o Kultura administraria sortu. Administrari postu hau sortzen da Ibarra Udalak arrazionalizazio plan honen bidez postu kualifikatu eta erantzunkizunekoak sortzeko irizpidearen baitan. Legeek agintzen dituzten betebeharrak dakartzaten erantzunkizunei aurre egiteko postu hau sortzea ezinbestekoa da. Postu hau bete bitartean bitarteko funtzionario bidez beteko da (2019ko estabilizazioarako lan eskaintzan barneratuko da)

Lanpostu berri honen kostua egun arte rpt eta aurrekontuan barneratutako desagertzen den administrari laguntzaile lanpostu bidez bideratzen da. Postu honen kostu gehigarria birklasifikaziari lotua dagoenarik eta beraz soldata masaren mugaren baldentzetara lotua ez dagoelarik.

4.- Administrari laguntzaile postuak: aurrez egin diren mugimenduak direla eta administrari laguntzaile taldea 2019ko lanpostuen erlazioan desagertetzeko prozesuan bezala agertuko dira. 2 karrerako funtzionarioen esku dauden administrazio laguntzaile plaza horiek utzi egingo dira oraingoz karrerako funtzionarioek plaza lortu bitartean.

5.- Udaltzaingo departamentuko postuak:

· Lehen agentea: postu hau jada sortua dago eta C1 taldean barneratua dago. Postu hau berez "comisión de servicios" figura erabiliz beteko da. Kontutan izanik barne promozio bidez bete ezin dezakegun postua dela, horretarako agente postuan 3 urtez egon behar baitira agenteak, udaltzaingo gorputza berri izanik ezinezkoa da beste modu batean betetzea Ibarra Udalak dituen beharrei aurre egiteko. Beraz nahiz 2016ko lan eskaintzan sartua egon ezin izan zen bete eta ondorioz 2019ko lan eskaintzan barneratzea ezinbestekoa izango da.

· Agente postuak: 3 agente postu sortuak daude eta C2 taldetik C1 taldera klasifikatu berri dira Euskadiko Polizi legeak horrela agintzen duelako. 2 agente postua jada oposaketa bidez hautaketa egin dago eta 2 praktiketako funtzionario izendatu ziren. Hauetako batek uko egin dio praktika funtzionario izaerari eta soilik agente bat izango genuke jabetzan baldin eta praktikaldia gainditzen baldin badu. Ondorioz, 2 postu hutsik geldituko liratezke.

Kontutan izan behar da, 3 agente horietatik soilik bi eskaintzeko aukera izan dugula. Arrazoia da xxx legeak debekatu egiten zuela alguazil figura eta polizia figurak bateraturik

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

egotea. Hau da, bateraezina zen bi figurak izatea. Ondorioz, alguazilaren aurre jubilazioa eman arte ezinezkoa zitzaigun postu hori eskaintzea.

Oraingoz 2 postu hauek 2019ko lan eskaintzan barneratuko dira, eta bitartean “comisión de servicios” figura bidez betetzeko asmoa dago (sortu den ezustekoa kontutan izanik eta gorputzak funtzionatzen hasteko derrigorrezkoa zaigu beste agente bat izendatzea bestela ezinezko litzateke agente baten opor egun eta gaixoaldiak betetzea).

- Alguazil postua amortizatu egiten da bertako postua jabetzan zuen langilearen aurre erretiroa dela eta. 2019 urtean jubilatzen denez, postu hau 2020 urteko erreposizio tasan kontutan hartuko da.

6.- Zerbitzu berezien azpieskala: eginkizun anitzeko klaseko postuak:

- Obra enkargatua: C2 taldean dagoen postu bat da eta egun jabetzan dago karrerazko funtzionario baten bitartez.

- Eginkizun anitzeko langilea elektrikaria: C2 taldean dagoen postu bat da eta egun jabetzan dago karrerazko funtzionario baten bitartez.

- 2 postu modu honetan sortuko dira: tokiko entitate batetako lanpostuen ezaugarrien aldaketa lanpostuen zerrendaren bidez burutu behar da, hau baita Administrazio Publikoak, bere autonomia eta autoantolakuntza ahalmenaren baitan, duen tresna teknikoa giza baliabideen antolakuntza efektiboa burutzeko. Beraz, tresna honekin benetako beharrei erantzuteko mugimenduak burutu ditzazke. Ondorioz, planaz sortu, benetako beharrei erantzuten ez dieten plazak kendu edo errealitatera egokitzeak plazetan aldaketak burutu ditzazke beti ere aurrekontuak hau egiteko aukera ematen baldin badu. Beraz, mugimendu hauek aurrekontura baldintzatuak gelditzen dira. Beraz lanbide taldetik C2 taldera plazak birmoldatzeko mugimenduak lege barruan egiten dira. Ibarra Udalak alde batetik mugimendu honekin lortu nahi duena da postu bakoitzari dagokion formakuntza egokitzea eta ez postua betetzen duen langile edo pertsonaren formakuntzaren arabera sailkapen bat edo bestean barneratzea postu horren ezaugarriak. Egun lanpostu hau bitarteko funtzionario bidez betetzen da baina Dekretu Legegile 5/2015 Dekretu Legeigilearen 14. artikulua adierazten duen bezala (Langile Publikoen Oinarrizko Estatutu Legearen testu bateratua onartzen duenak) soilik karrerazko funtzionarioek dute mugikortasun ezaren bakarkako eskubidea, Ondorioz, bitarteko funtzionarioek ez dute administrazioak mugikortasuna eman behar denaren kasuan eskubide berezirik. Beraz aipatzen diren postu honetan lanbide taldetik C2 talderako mugikortasuna sortuko da Ibarra Udaleko beharrei erantzuteko. Behar nagusia da talde bateratua sortzea eta brigadan dauden langile denak kualifikazio bereko langileak izatea eta polibalentzia

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

lortzeko derrigorrez talde berdinean egokitu behar dira (askotan lan desberdinak egikaritu behar baitituzte eta gaituak egon behar dira horretarako):

- Obra zerbitzuko langilea (igeltxeroa) postu berria sortzen da C2 taldean barneratua dagoena. Aurrez postu hau lanbide taldean barneraturik zegoen eta horrela klasifikaturiko postua desagertu egingo da, Ibarra Udaleko lanpostu zerrendan lanbide talde klasifikazioko postu denak desagertuko direlarik eta brigada guztia C2 taldean sailkatuko delarik. 2019ko lan eskaintza publikoan barneratuko da lanpostu hau eta oposaketa aske bidez beteko da.

Alderdi ekonomikoari dagokionean, dagoeneko bere ordainsariak C2 mailari dagozkionak ziren, eta beraz ez da inolako kostu gehigarririk aurreikusten.

- Lorezain postu berri bat sortzen da C2 taldean sailkaturik dagoena eta postu hau oposaketa aske bidez beteko da. Alguazil postuaren amortizazioaren erreposizio tasarekin betetzen da. (2020ko lan eskaintzan barneratuko da)

Alderdi ekonomikoari dagokionean, ordainsariak alguazilarenaren parekoan dira, eta beraz aurrekontuko 1. Kapituluan eragin aipagarriarik sortu gabe.

- Lorezain postua: jada postua sortua dago eta C2 taldean klasifikaturik egongo da. Postu hau egun bitarteko funtzionario baten bitartez betetzen da baina 2016 lan eskaintzan barneratua zegoen eta deialdia burutzea dagokio oposaketa aske bidez.

- Eginkizun anitzeko langilea: jada postua sortua dago eta C2 taldean klasifikaturik egongo da. Postu hau egun bitarteko funtzionario baten bitartez betetzen da baina 2019 estabilizaziorako lan eskaintzan barneratuko da eta oposaketa aske bidez beteko da.

7.- Azkenik, Ibarra Udalak euskararen alde egiten duen apostu eta bere barne politikari eutsiz, Ingurumen teknikari postuaren hizkuntza eskakizuna 3 izan beharrean 4 izatea erabakitzen du. Honen arrazoi nagusia ez da udalak bere horretan harturiko aldebakarreko erabaki bat. Euskarri nagusia, postu hau sortu zenean Eusko Jaurlaritzak beharrezko hizkuntz eskakizun perfilaren inguruan egindako txostena litzateke. Bertan 4 hizkuntz eskakizuna behar duen postua dela proposatu zuen. Teknikari espezializatuen irizpidea jarriki, 3. Perfiletik 4. Hizkuntza eskakizuna ezartzea erabakitzen da.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

V PROPOSATURIKO NEURRIEN AZTERKETA JURIDIKOA

1.- OINARRI JURIDIKOA

Aurreko atalean aipatu diren xedapen zehatzez gain, dokumentu honetan aurreikusi diren enplegua egonkortzeko neurrien oinarri nagusia, 2019ko Estatuko Aurrekontuei buruzko 6/2018 Legeak xedatu du (uztailak 28ko zuzenketak EAO A2018 10648 eta azaroak 29ko zuzenketak EAO A 2018 16257). Hona hemen laburpen bat:

19. art. Lan Eskaintza Publikoa edo antzeko beste tresnaren bat pertsonal-beharren hornikuntza kudeatzeko.

Legeak zehaztutako sektore publikoan pertsonal berria txertatzeko, gero adierazten diren ataletan xedatutako mugak eta baldintzak bete behar dira. [Honako hauek salbuetsita daude: merkataritza-sozietate publikoak eta enpresa-entitate publikoak, sektore publikoko fundazioak eta nagusiki Sektore Publikoa osatzen duten Administrazioek eta Organismoek parte hartutako partzuergoak, horiek denak, hurrenez hurren, Lege honen eta Estatuko Organo Konstituzionalen hogeita zazpigarren, hogeita zortzigarren eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoari jarraituko baitiote]:

— Salbuespena: aurreko EPE batzuei dagozkien hautapen-prozesuetatik datorren pertsonala txertatzea.

— 1. muga: Gastuen aurrekontuaren 1. kapitulua. (homogeneotasun-egoeren hausturakasuetan izan ezik, Programa honetan argudiatzen den bezala).

Administrazio Publikoetan pertsonala txertatzeari buruzko xedapenak:

a. Aurreko ekitaldietan aurrekontu-egonkortasunari eta zor-publikoari eta gastu arauari buruzko helburuak bete dituzten Administrazio Publikoak (Ibarrako Udala):

1. Birjarpen-tasa, ehuneko 100.

2. Tasa gehigarria, % 8, giza baliabideen errefortzua behar duten sektoreetan, betiere aurrekontu-egonkortasun eta finantza-jasangarritasunaren esparruaren barruan. Portzentaje gehigarri hau lehentasunez erabiliko da jarraian azaltzen diren egoeraren bat gertatzen denean: zerbitzu publiko berriak ezartzea, urte-sasoia araberako jarduera jarduera turistikoaren eraginez handitzea edo espero diren



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

5. Honako sektore eta kolektibo hauetan: administrazio-zerbitzuetako eta zerbitzu orokorretako langileak, ikerkuntza-arlokoak, osasun publiko eta ikuskatzailea medikokoak, bai eta beste zerbitzu publiko batzuk ere. Guztiak, Toki Administrazioan, Estatuko Aurrekontuak onartzen dituen Legearen xedapenak kontuan hartuz.
6. Tasa gehigarri honi dagozkion Enplegu Publikoko Eskaintzak: onartu eta dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratu behar dira, 2019 eta 2020 ekitaldietan. Egonkortze prozesuen barruan dauden plazak aldi baterako betetzeko tasak ehuneko 8tik behera egon behar du, arlo bakoitzean, aldiaren amaiera. Tasen baliozkotasuna baldintza hauek betetzearen mende gelditzen da.
7. Hautaketa-prozesuak: berariazkoak, irekiak, lehia libre, berdintasun, meritu, gaitasun eta publikotasun printzipioak bermatuta.
8. Negoziatu ahal izango dira Estatuko Administrazio Orokorreko eta Autonomia Erkidegoetako eta Toki-Erakundeetako lurralde-eremu bakoitzean.
9. Prozesu horiek garatzeko, Administrazio desberdinen arteko koordinazioa posible egiten duten neurriak artikulatu daitezke.
10. Mugak: Gastu-gehikuntzarik ez, giza-baliabideen gehikuntzarik ez.
11. Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioari jakinarazi behar zaio aldi baterako zenbat plaza dauden, bai eta ISPA sistemaren bidezko egonkortze-prozesuen emaitzak ere.

Horretaz gain, Aldi baterako langileen kontratazioa edo bitarteko funtzionarioen izendapena: bakar-bakarrik egoera berezietan eta presazko eta atzeraezinezko beharrak betetzeko.

Lehentasunezko sektoreetan birjartze-tasak pilatzeko aukera: berdin.

Arau hauek guztiak oinarritzko izaera dute eta Konstituzioaren 149.1.13a eta 156.1 artikuluen babespean ematen dira.

ALDI BATERAKO ENPLEGUA KONTSOLIDATZEKO ETA EGONKORTZEKO JARDUNBIDEEI BURUZKO IRIZPIDE OROKORRAK

Gai honi buruz Estatuan zehar eman diren prozesuak aztertu ondoren, dokumentu honetan prozesu hauek garatzeko irizpide orokorrak proposatzen dira, indarrean dagoen legeria kontuan hartuta. Abiapuntu gisa, 2017ko Estatuko Aurrekontu Orokorretatik

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

eratorritako egonkortze prozesua aplikatzeko irizpide komunak, (hainbat aldaketekin) izeneko dokumentuan oinarritzen da proposamen hau.

Enplegu publikora sartzeko sistemak, 2018ko aurrekontu legearen ondoren eta 2019ko Estatuko Aurrekontu Legearen aurreikuspenak kontuan hartuta:

— Txanda irekia: oposizioa edo oposizio-lehiaketa.

— Txanda irekia: aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuekin (2014-12-31 baino lehenagoko enplegua).

— Txanda irekia, aldi baterako enplegua kontsolidatzeko prozesuekin (2005-01-01 baino lehenagoko enplegua). Enplegatu publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 4. Xedapen Iragankorrean araututako kontsolidazio prozesuekin. Kasu horretan, proben edukiak zerikusia izango du deialdi bakoitzaren helburu diren lanpostuen ohiko prozedura, lan eta funtzioekin (proba praktikoak) Berdintasun-, meritu-, gaitasun- eta publikotasun- printzipioak errespetatu beharko dira.

Azkeneko biek helburu bera dute: aldi baterako langileen tasa murriztea, prozesuaren amaieran, % 8 baino txikiagoa izan arte. Helburu hori 2018ko ALO Proiektuan mantentzen da.

Jarduketa-irizpideak:

— Iragarri beharreko plazak:

* Aldi baterako betetako plazen kopurua: % 100. Kasu honetan, alde batera utzi dira hainbat lanpostu edo kolektibo: musika eskola eta, euskaltegiko irakasleak, erretirotik gertu egon daitezkeen langileak.

* Lanaldi partzialeko lan-postuak: bat balitz bezala zenbatuko dira, eta prozesuan izaera horrekin hornitu ahalko dira.

* Egonkortze-kopuru horri aldatu gabe eutsiko zaio prozesu osoan zehar.

— Egonkortze- eta kontsolidazio-epeak zenbatzeko, ez dira etenaldizat hartuko, lanpostua, dagozkion tramite administratiboen ondorioz, hutsik egon den epea (adib: funtzionario bat lanpostua utzi ondoren beste bat izendatzea, edota langilea berriro izendatu edo kontratatzeko epe laburra).

— Zer gertatzen da erreferentziarako lanposturik ez duen aldi baterako langileekin? Lanpostu hauek prozesuan kontatuko dira baldin eta:

* Izaera estrukturala badute, behar estrukturaleri erantzuten badiete (hau da egiaztatu beharreko lehen aspektua).

* Aldi baterako programak ez badira.

* Aurrekontu-zuzkidura badute eta 1. Kapituluaren gehikuntzarik eragiten ez badute.

* Bere kasuan, lanpostu berriak sortu edo hutsik daudenak aprobetxatu behar dira.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- * Gure kasuan kontuan hartu dira:
 - Lanpostuen kopurua, ez pertsonena:
 - * Pertsona batek baino gehiagok bete badu lanpostu edo dotazio bat egonkortze-prozesuan, kontatu egin beharko da.
 - * Bitarteko langile bi txandakatu badira plaza berean, lanpostu bakarra kontatu behar da.
 - Aldi baterako langile laboralak bete eta ahalmen publikoak erabiltzea beharrezko duten lanpostuak/ Funtzionarizatzeak:
 - * Plazak kontatu egingo dira dagokion kidego ed eskalako langile funtzionarioek bete ditzaten.
 - * Egonkortze-prozesuetan parte hartu ahal izango dute lanpostu horiek behin-behineko izaerarekin betetzen duen langile laborek. Langile horiek funtzio horretan egindako lana meritutzat hartuko da.
- Hautaketa-prozesuaren baldintzak:
 - * Atera beharreko lanpostuak sartu behar dira LEP (Lan Eskaintza Publikoa) batean, zeina eskumena duen organoak onartu eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko den.
 - * Deialdietan adierazi behar da zein LEPTan dauden baimenduta.
 - * Lanpostu berak hutsik jarraitzen badu hautaketa-prozesuaren ondoren, sartu ahal izango da hurrengo LEPan.
- LEPak exekutatzeko epeak:
 - * Hautaketa-prozesuen deialdiak argitaratuko dira 3 urteko epean, dagokion LEPa onar-tzen den egunetik kontatzen hasita, 2019an izan behar duelarik.
- Debatuta dago deialdi itxiak egitea; prozesu irekiak izan behar dute.
- Lanpostua eskuratzeko behar den titulu akademikoa edo hizkuntza-profila eskatuko da, baita lanpostu hori aldi batean eta jarraian bete dutenei ere, salbu-eta araudiak besterik baimentzen duela. Aldi baterako kontratua dutenek antzinasun baldintzak betetzen dituztenean, parte-hartzeko aukera eduki behar izan dute (doktrina judiziala).
- Deialdia, beste hautaketa-prozesu batzuekin batera ala haietatik aparte? Bi moduak izan daitezke, honako hauek aintzat hartuta:
 - * Prozesuak egiten badira prozesu arruntekin metatuta, baloratu beharreko ariketak eta merituak berberak izango direla.
 - * Bereizita burutzen diren prozesuak guztietan desberdintasunak ezar daitezkeela.
 - * Nolanahi ere, prozesuek izan behar dutela irekiak, lehia askekoak.
 - * Aukerak negoziazio kolektiboaren esparruan edukiko dira kontuan.
 - * Ibarra udalaren kasuan, aldi baterako lana kontsolidatzeko edo egonkortzeko jardunbide berezituak burutzea proposatzen da.
- Egonkortze-prozesuetan erabili beharreko hautaketa-sistemak: (Ez Enplegu publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 4. Xedapen Iragankorrean araututako kontsolida-tzeko-prozesuak; kasu horretan, antzinasun handiena duten langileentzat proba batik-bat praktikoa izango litzateke oposizio-lehiaketa fasean):

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

- * Oposizioa edo oposizio-lehiaketa, dagokion prozesua erregulatzeko berriazko araudia dagoenean izan ezik.
 - * Egoera objektibo berberen aurrean ez da tratatu ezberdintasunik egingo.
 - * Oposizioa: gainditutako kopurua izango da gainditu dutenen kopuru berbera, plaza kopurua gaindituta ere.
 - * Lehiaketa: ezin da erabili oposizio-fasea gainditzeko, eta ez da baztertzaila izango.
 - * Lehiaketa-faseari emandako puntuazio osoa: ezin du gainditu indarrean dagoen araudiak baimendutako gehienezko puntuazioa. Gure kasuan, bat etorrita TAOLaren 100.2.^a) artikuluan ezarritakoarekin, 896/1991 Errege Dekretua, Oinarrizko Arau eta Gutxieneko Programei dagokienez, izango litzateke aplikagarri, eta Euskal Funtzio Publikoaren Legea (EFPL) izango litzateke aplikagarri lehenengoak arautzen duen guztian. EFPLren 26.3 artikulua xedatzen duenez, lehiaketa-fasean puntuazioak ezin du gainditu oposizio-faseari dagokion puntuazioaren % 45a. Egonkortze eta kontsolidatze jardunbideetan puntuazio garrantzitsua emango zaio udal honetan burututako jardunari.
 - * Horretaz gain, lehiaketa-fasean baloratu behar dira, bai Administrazioan emandako zerbitzuak, baita beste meritu batzuk (titulazioa, ikastaroak). Izan ere, lanpostuan izandako esperientziak ezin du baldintza bakarra izan.
 - Aldi baterako edo bitarteko langileari jakinarazi behar zaio lanpostu hori deialdiaren barruan sartuko dela.
 - Deialdian identifika daitezke, edo ez, zein diren eskainiko diren lanpostuak, eta horiek dagozkien kodeak. Dena dela, prozesuaren tipologia aipatu behar da kasu guztietan: kontsolidazioa (Enplegatu publikoaren Oinarrizko Estatutua), egonkortzea (Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea) edo epai batek mugagabe ez-finko izaera aitortzen duen epaiaren ondorengo prozesua,
 - Eskaintzako lanpostuen lehentasun-ordena: Administrazio bakoitzari dagokio, irizpide objektiboen arabera; negoziazio kolektiboaren bidez ebatzi behar da.
 - Hautaketa-prozesuaren ondoren, lanpostuen uzteak eta jabetzeak modu koordinatuan artikulatu behar dira.
 - Egonkortze eta kontsolidazio-prozesuak negoziazio kolektiboaren bidez ebatzi behar dira (Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea Enplegatu publikoaren Oinarrizko Estatutua).
- 5.º Lanpostuak hornitzeko bestelako erak.
190/2004 Dekretuak, urriaren 13koak, besteak beste, ondoko era hauek arautzen ditu, lanpostuen hornikuntzarako:

VI PLANAREN ONARPENA EMATEKO PROZEDURA

Giza Baliabidek Arrazionalizazeko Plan hau onartzeko prozeduran bi eremu kontutan izan behar dira; alde batetik langileekin beharrezkoa den negoziazio eremua eta beste alde

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

batetik, udal organoek hartu beharreko erabakiak hartzeko derrigorrez bete behar diren izapideak aurrera eramateko eremua.

1. Langileen ordezkariekin negoziazioa

5/2015 Errege Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak arautzen dituenak, bere 37.artikuluaren honakoa adierazten du negoziatu daitezkeen gaiak zeintzuk izango diren:

37. artikulua. Negoziatio-gaiak.

1. Administrazio publikoetako bakoitzak dituen eskumenei lotuta, bakoitzak bere eremuan eta kasuan-kasuan legez dagokion irismena izanik, ondorengo zerrendan jasotako hauek izango dira negoziatio-gaiak:

a) Estatuko nahiz autonomia-erkidegoetako Aurrekontu Orokorren Legean ezarritakoaren arabera, administrazio publikoetako langileen ordainsarrietan egin beharreko igoera aplikatzea.

b) Funtzionarioen ordainsari osagarrien zenbatekoa ezartzea eta aplikatzea.

c) Irizpide orokorrak finkatzeko arauak, gai hauek direla eta: enplegu publikora iristea, karrera egitea, lanpostuak betetzeko moduak, lanpostuak sailkatzeko sistemak eta giza baliabideak antolatzekeo planak eta planifikazio-tresnak.

d) Jarduna ebaluatzeko orduan, irizpide eta mekanismo orokorrak finkatzeko arauak.

e) Gizarte-aurreikuspen osagarrirako planak.

f) Barne-sustapeneko eta prestakuntzako planei eta funtsei buruzko irizpide orokorrak.

g) Gizarte-prestazio eta klase pasiboen pentsioak zehazteko irizpide orokorrak.

h) Eskubide sindikalei eta parte-hartzeari buruzko proposamenak.

i) Gizarte-ekintzari buruzko irizpide orokorrak.

j) Laneko arriskuen prebentziorako arautegian halaxe ezarrita daudenak.

k) Funtzionarioen lan-baldintzetan eta ordainsarrietan eragina dutenak, baldin eta horiek arautzeko lege-mailako arauak izatea beharrezkoa bada.

l) Enplegu publikoaren eskaintzei buruzko irizpide orokorrak.



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

m) Hauei dagozkienak: lan-egutegia, ordutegiak, lanaldiak, oporrak, baimenak, mugigarritasun funtzionala eta geografikoa, baita giza baliabideak estrategikoki planifikatzeko irizpide orokorrak ere, enplegatu publikoen lan-baldintzetan eragina duten alderdiei dagokienez.

Beraz, negoziatzeko gaia da, Herri Administrazio bakoitzak dituen eskumenak kontutan izanik, bere eremuan giza baliabideak antolatzeko planak eta planifikazio-tresnak. Ibarra Udalaren kasuan, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana negoziazioan barneratu beharreko gaia litzateke.

Negoziatu daitezkeen gaietaz gain, nahiz eta ez diren derrigorrez negoziazio mahaiaren bitartez aztertu beharreko gaiak, legeak aukera ematen du negoziazio mahairekin ausnarketa eta gogoetan egitea honako gai hauetan:

37. artikulua. Negoziazio-gaiak.

2. Honako gai hauek ez dira izango nahitaez negoziazioan aztertu beharrekoak:

a) Administrazio publikoen erabakiak, baldin eta beren antolamendu-ahalei eragiten badiete.

Administrazio publikoek beren antolamendu-ahalekin loturik hartzen dituzten erabakien ondorioek aurreko zenbakian adierazitako funtzionario publikoen lan-baldintzetan eragina dutenean, egoki izango da baldintza horiek estatutu honetan adierazitako erakunde sindikalekin negoziatzea.

b) Zerbitzu publikoen erabiltzaileek eta herritarrek dituzten eskubideen erregulazioa bai eta administrazio egintzak eta xedapenak eratzeko prozedura ere.

c) Zuzendaritzako langileen lan-baldintzak zehazteko erabakiak.

d) Hierarkia-harremanari dagozkion zuzendaritza- eta kontrol-ahalmenak.

e) Enplegu publikora iristeko eta lanbide-sustapena egiteko sistemak, irizpideak, organoak eta prozedurak finkatzeko erregulazioa eta mugapen zehatza, kasuan-kasuan.

Bestalde, aipaturiko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, bere 33. artikuluan negoziazio hau nola burutu behar den adierazten du:



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

33. artikulua. Negoziazio kolektiboa.

1. Funtzionario publikoen lan-baldintzak finkatzeko negoziazio kolektiboa, betiere, legezketasuna, aurrekontu-estaldura, betebeharezketasuna, negoziatzeko fede ona, publikotasuna eta gardentasuna printzipiotzat hartuta egingo da, kapitulu honetan aurreikusitakoa eta Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoaren 6.3.c), 7.1 eta 7.2 artikuluetan erakunde sindikalei aitortutako ordezkarietzagaitasuna baliatuz.

Horretarako, negoziazio-mahaiak eratuko dira, eta, legitimazioa dutelako, bertan izango dira, alde batetik, dagokion administrazio publikoaren ordezkariak, eta, bestetik, estatu osoan ordezkarietzarik gehienduten erakunde sindikalak, autonomia-erkidegoan ordezkarietzarik gehien duten erakunde sindikalak, eta, Langileen Batzordeak eta Ordezkariak aukeratzeko hauteskundeetan, bakoitzaren berriazko eraketa-eremuan dauden hauteskunde-unitatean, ordezkarietatik ehuneko 10 edo gehiago lortu duten sindikatuak.

2. Administrazio publikoek izaera teknikoko organoak sor ditzakete, eta beren esku utzi negoziazio kolektiboaren inguruko jardunak; aurretiaz jaso beharreko jarraibide politikoak jasota, negoziazio kolektiboan organo horiek izango dute beren gain administrazio publikoaren ordezkarietza, nahiz eta gero horretarako eskumena duten gobernuedo administrazio-organoen berretsi beharko dituzten lortutako akordioak.

Negoiazioa legaltasun printzipioaren baitan egingo da eta beti ere aurrekontua kontutan izanik (bera mugatuko du negoziatzen diren gaiak aurrera eramane daitezkeen edo ez). Bestalde fede onaren baitan eta publizitatea eta gardentasuna mantenduz. Negoziazio mahaiak izango da eskuduntza izango duena eta bertan dauden kide eskumendunak honakoak izango dira: alde batetik Administrazio Publikoaren ordezkariak egongo dira eta beste alde batetik langileen ordezkariak egongo dira legeak adierazten duen moduan.

2.- Udal organoek erabakiak hartzeko izapidetzea.

Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planak eragin nabaria izango du udal aurrekontuko lehen kapituluan. Hau da, lanpostuak sortu, sailkatu, ezaugarri eta funtzioak aldatuko direlarik. Lanpostuen zerrenda eta Langileen plantilla aldatzeaz gain aurrekontuan eragina izango du.

Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana onartzeko eskuduntza Ibarra Udaleko Udalbatzari dagokio, 7/1985 Legeak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak honela adierazten baitu bere 22.2.i artikuluan:

22. artikulua.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

1. Osoko bilkura zinegotzi guztiek osatzen dute, eta alkatea du buru.
2. Hauek dira, nolana ere, osoko bilkurari dagozkion eskumenak:

i) Langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea; eta funtzionarioen ordainsari osagarri finko eta aldikako zenbatekoa eta behin-behineko langileen kopurua eta araubidea finkatzea.

Espediente kudeatzaile programan honako izapideak dituen espediente bat eratu beharko da:

1. **Negoiazio mahaia:** negoziazio mahaia prozesu honetan 2 alditan burutuko da. Lehenengo aldia Giza Baliabide Arrazionalizazio plan honetan xedaturikoaren inguruan negoziatzeko. Ondoren, bigarren aldiz alegazio fasea agortu ondoren bertan jasotakoaren inguruan eztabaidatzeko eta onartzen diren alegazioak behin-betiko dokumentu batean barneratzeko (hori izango da Udalbatzara igorriko den Giza Baliabideetako Arrazionalizazio Plana). Negoziatu ondoren, negoziazio horien baitan lortzen diren akordioak akta jaso beharko dira.
2. Idazkariaren eta Kontuhartzailearen txostenak
3. Ondoren, akta horretan proposatzen diren proposamenak (bereziki Giza Baliabideetako Arrazionalizazio Planari dagozkionak) Ogasun eta Pertsonal batzordean eztabaidatu ondoren bertan irizpena proposatuko zaio Udalbatzari, honek onar dezan.
4. Udalbatzak, programa honi behin-behineko onespina eman beharko dio

7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinariak arautzen dituenak bere 90. artikuluan honakoa xedatzen du:

90 artikulua.

1. - Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, plantilla onartzea. Zerrenda horretan funtzionarioen, eta lan-kontratuko eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak jaso beharko dira.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Plantillak arrazoikotasun-, ekonomia- eta eraginkortasun-printzipioen arabera izan behar dira, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri behar dira. Langileen gastuek ezin dituzte gainditu orokorrean ezarritako mugak.

2.- Toki-korporazioek beren antolakuntzan dauden lanpostu guztien zerrenda egin behar dute, funtzio publikoari buruzko oinarritzko legedian aurreikusitakoaren arabera.

Lanpostuen zerrendak, eredu moduko lanpostuen deskribapena eta lanpostuak sortzeko beharrezko baldintzak prestatuko dituzten arauak ezartzea Estatuari dagokio; baita administrazioko karrerako oinarritzko arauak ezartzea ere, bereziki goragoko maila eta taldeetara funtzionarioak sustatu ahal izateko.

3.- Toki-korporazioek, gainerako herri-administrazioekin koordinaturik, langileen erregistroak eratuko dituzte, Gobernuak onartutako arauen arabera. Erregistro horretako datuen arabera zehaztuko dira soldaten ordainagiriak, ordainsari guztiak egiaztatuta egon daitezen.

781/1986 Errege Dekretua Legegileak, Tokiko Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratua onartzen duenak bere 126 artikuluan ere honakoa adierazten du:

Art. 126.

1. Las plantillas, que deberán comprender todos los puestos de trabajo debidamente clasificados reservados a funcionarios, personal laboral y eventual, se aprobarán anualmente con ocasión de la aprobación del Presupuesto y habrán de responder a los principios enunciados en el artículo 90.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril. A ellas se unirán los antecedentes, estudios y documentos acreditativos de que se ajustan a los mencionados principios.

2. Las plantillas podrán ser ampliadas en los siguientes supuestos:

a) Cuando el incremento del gasto quede compensado mediante la reducción de otras unidades o capítulos de gastos corrientes no ampliables.

b) Siempre que el incremento de las dotaciones sea consecuencia del establecimiento o ampliación de servicios de carácter obligatorio que resulten impuestos por disposiciones legales.

Lo establecido en este apartado será sin perjuicio de las limitaciones específicas contenidas en leyes especiales o coyunturales.

3. La modificación de las plantillas durante la vigencia del Presupuesto requerirá el cumplimiento de los trámites establecidos para la modificación de aquél.

4. Las relaciones de los puestos de trabajo, que tendrán en todo caso el contenido previsto en la legislación básica sobre función pública, se confeccionarán con arreglo a las normas previstas en el artículo 90.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Udalbatzak erabakia hartzeko Lege 7/1985ak bere 46-47 artikuluen baitan hartu beharko da:

5. Espedientea jendeaurrean ezarri beharko da 15 laneguneko epean, interesatuek dagozkien alegazio eta iradokizunak aurkez ditzaten.
6. 15 laneguneko epean iradokizun edo alegazioak jasotzen badira, hauek Ogasun eta Pertsonal Batzordean eztabaidatuko dira eta hauen inguruko irizpena aurkeztuko da Udalbatzan, honek onar ditzan. Alegazioak erantzun egingo dira (interesatuei jakinaraziz hartu den erabakia) eta planean barneratu behar diren eta barneratu behar ez diren iradokizunak zeintzuk diren erabakiko dira. Plana osatuko da, hartutako erabakiekin eta behin betiko onespina emango dio Udalbatzak. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ibarra Udako web orrialdean argitaratuko da Giza Baliabideetako Arrazionalizazio Plana gardentasuna eta publizitate printzipioak errespetatuz.
7. Alegazioak aurkezten ez diren kasuan, udal idazkariak alegazioak aurkeztu ez direla adierazten duen ziurtagiria burutuko du eta honekin Giza Baliabideetako Arrazionalizazio Planak behin-betikotasuna izango du Udalbatzaren onarpen berria behar gabe (beti ere hau adierazten duen klausula barneratzen bada Giza Baliabideetako Arrazionalizazio Planaren behin-behineko Udalbatzaren erabakian).
8. Udalbatzaren behin-betiko akordioak bide administratiboa agortzen du.

Lege 39/2015, urriak 1ekoak, Administrazio Publikoen prozedura administratibo orokorra arautzen duenak adierazten duen bezala:

114. artikulua. Administrazio-bidearen amaiera.

1. Administrazio-bidea amaituko dute:
 - a) Gora jotzeko errekurtsoen ebazpenek.
 - b) 112.2 artikuluan jasotako prozeduren ebazpenek.
 - c) Hierarkian goragokorik ez duten administrazio-organoen ebazpenek, legeren batean aurkakorik ezartzen ez bada.**
 - d) Prozedura amaitzekotzat jotzen diren akordio, itun, hitzarmen edo kontratuek.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

e) Ondare-erantzukizuneko prozeduretan, administrazio-ebazpenak amaitu egiten du administrazio-bidea, edozein dela ere prozedura ekarri duen harreman mota, publikoa nahiz pribatua.

f) 90.4 artikuluan jasotako zehapen-gaietako prozedura osagarrien ebazpenak.

g) Administrazio-organoen gainerako ebazpenek, lege- edo erregelamenduxedapenen batek hala aginduz gero.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitakoaz gain, Estatuaren eremuan administraziobideari amaiera ematen diote honako egintza eta ebazpen hauek:

a) Gobernuko kide eta organoen administrazio-egintzek.

b) Ministroek eta estatu-idazkariak beren ardurapeko organoei esleitutako eskumenak baliatzean egindakoeak.

c) Zuzendari nagusiaren maila edo goragokoa duten zuzendaritza-organoeak pertsonalaren arloan dituzten eskumenekin loturik emandakoek.

d) Estatuaren Administrazio Orokorrari loturik edo haren mende dauden organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitateetan, pertsona bakarreko edo kide anitzeko zuzendaritza-organo nagusiek beren estatutuek ezartzen dutenaren arabera emandakoek, legez besterik ezartzen ez bada.

IV.- ERANSKINA:

IBARRAKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA (2020-2023)

ATARIKOA

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua oinarritzko izaera du eta ondorioz dirulaguntzak emateko asmoa duen Udal orok onartu behar du dagokion Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Legeraren printzipio zuzentzaileetako bat gardentasuna da eta, legeak arautzen dituen tresna sorta zabalaz baliatuz, horrek eragin zuzena izango du dirulaguntzen bidezko gastu publikoaren kudeaketaren efizientzia eta efikazia mailak igotzeko.

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Aipaturiko efikazia lortzeko, 38/2003 Legearen baitan Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat egiteko beharra aurreikusten da. Plan hau, urte anitzekoa izan beharko da eta dirulaguntzak sortu aurretik egikaritu beharko da.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1 ARTIKULUA.

Ibarrako Udalak, 2020-2023 aldian emango dituen dirulaguntzak honako plan honetan aurreikusitakoaren arabera emango ditu beti ere 2013ko ekainaren 7an 108 zenbakian Gipuzkoako aldizkari Ofizialean argitaratu zen Ibarrako Udaleko Dirulaguntzen ordenantza orokorraren baitan (2013ko apirilaren 11an ospaturiko Udalbatzan onartua).

2 ARTIKULUA

Plan honetan aurreikusitako dirulaguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion diru-esleipenak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta dirulanguntzak arautzen dituzten oinarriak (lehiaketa askeko dirulaguntzen kasuan) onartu egin beharko dira.

3 ARTIKULUA

Dirulaguntzak ezartzeko baldintza izango da aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzea, eta berz, onartuko diren aurrekontu esleipenak eta diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak uneroro helburu horietara egokitu beharko dira.

4 ARTIKULUA

Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortuko onuradun izan daitezkeenentzat, eta ezingo dute inolako kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu Plana bere horretan betetzen ez bada.

5 ARTIKULUA.

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

a.- Publizitatea eta lehiakortasun askea bermatuko da aurrez egindako deialdi bidez. Deialdi horretan objektibitatea, gardentasuna, publizitatea, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna egongo dela bermatu beharko dira, hori guztia, emakida zuzena kaltetu gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakioken arauan ezarritakoaren arabera emango dira (2013ko ekainaren 7an 108 zenbakian Gipuzkoako aldizkari Ofizialean argitaratu zen Ibarrako Udaleko

2020/02/18



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Dirulaguntzen ordenantza orokorraren baitan (2013ko apirilaren 11an ospaturiko Udalbatzan onartua), aurrez dagokion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.

b.- Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera egingo da dirulaguntzaren ematea eta onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatu beharko da.

c- Eraginkortasunaren arabera jarritako helburuak betetzeko eta efizientziaren arabera baliabide publikoak esleitzeko justifikatu beharko da emandako dirulaguntzarena kantitatea eta kalitatea.

d- Kontrolatu beharko da diruzlagundutako erakunde eskatzaileen jardueretan, berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioak egoki bete direla.

6 ARTIKULUA

